

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 2006/123/EE ZUZENTARAUUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko abenduaren 12koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta zerbitzu horren ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*Directiva 2006/123/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de diciembre de 2006, relativa a los servicios en el mercado interior*» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L376/36 de 27/12/2006)

2006/123/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA

2006ko abenduaren 12koa

barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen tratatua ikusi da, zehazki, 47. artikulua 2. paragrafoko lehen eta hirugarren esaldiak, eta 55. artikulua,

Batzordearen proposamena aztertu da,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena ⁽¹⁾ aztertu da,

Ekualdeetako Komitearen irizpena aztertu da ⁽²⁾,

Tratatuko 251. artikuluan ⁽³⁾ araututako prozedurari jarraiki,

Hauek kontutan hartu dira:

(1) Europako Erkidegoaren xedeak dira Europako estatu eta herrien arteko loturak geroz eta gehiago estutzea eta aurrerabide ekonomikoa eta soziala bermatzea. Tratatuko 14. artikulua 2. paragrafoaren arabera, barne-merkatuak barne-mugarik gabeko espazioa sortzen du, zerbitzuen zirkulazio askea bermatzeko. Tratatuko 43. artikulua ezartzeko askatasuna bermatzen du, eta 49. artikulua Erkidegoaren barneko zerbitzu-emate askea ezartzen. Europako herrien arteko integrazioa sendotu, eta ekonomian nahiz gizartean aurrerabide orekatu eta iraunkorra sustatzeko aldera, funtsezko bidea da estatu kideen arteko zerbitzu-jarduerak oztopatzen dituzten hesiak ezabatzea. Hesi horiek botatzerakoan, ezinbestekoa da tratatuko 2. artikuluan ezarritakoa betetzen lagunduko duten zerbitzu-jarduerak sustatzea, hau da, «Erkidego osoan» hauek sustatzen dituztenak: «ekonomia-jardueren garapen armoniatua, orekatua eta iraunkorra, enplegu-maila zein gizarte-babes handia, emakume eta gizonen arteko berdintasuna, hazkuntza iraunkorra eta ez-inflazionista, emaitza ekonomikoen lehiakortasun eta

bateratasun handia, ingurugiroaren babes-maila altua eta kalitatearen hobekuntza handia, bizi-maila eta -kalitatea igotzea, gizarte- nahiz ekonomia-kohesioa, eta estatu kideen arteko elkartasuna.»

(2) Europar Batasunean hazkuntza ekonomikoa eta lanpostuen sorkuntza sustatzeko funtsezkoa da zerbitzuen merkatu lehiakorra izatea. Egun, hesi ugari dago barne-merkatuan, eta hesiok zerbitzu-emaleei, batez ere enpresa txiki eta ertainei (ETE), eragotzi egiten diete jarduna beren herrialdeko mugetatik kanpora ateratzea, baita barne-merkatuaren onura guztiez gozatzea ere. Horrek Europar Batasuneko zerbitzu-emaleen lehiakortasun globala ahultzen du. Estatu kideek nazioetako mugez gaindi zerbitzuak emateko dituzten mugak kentzera behartuko balitu merkatu libre horrek, eta aldi berean, kontsumitzaileei gardentasun eta informazio handiagoa emango balie, kontsumitzaileek aukera zabalagoa izango lukete, eta zerbitzu merkeagoak.

(3) Batzordearen «Zerbitzuetako barne-merkatuaren egoera»ri buruzko txostenean oztupo ugari zerrendatu dira estatu kideen arteko zerbitzuen garapenerako, bereziki ETEek emandako zerbitzuen garapenerako, zerbitzuen sektorean gehiengoa baitira. Txostenaren ondorioa da barne-merkatua taxututa egon beharko zuenetik hamar urte igaro ondoren, oraindik desfase handia dagoela Europar Batasunerako politika integratuaren eta Europako hiritar nahiz zerbitzu-emaleek bizi duten errealitatearen artean. Oztupoek zerbitzu-jardura askori eragiten diote, baita zerbitzu-emalearen jardueraren etapa guztiei ere, eta alderdi ugartan errepikatzen dira; izan ere, maiz, administrazio-izapideen ugaritasuna izaten da oztupoa, beste batzuetan, berriz, mugez gaindiko jardueren segurtasun juridikoaren gabeziak, edota estatu kideek elkarrekiko konfiantza nahikorik ez izatea.

(4) Zerbitzuak hazkuntza ekonomikoaren motorra badira ere, eta estatu kide gehienetan BPG eta lanpostuen % 70 diren arren, zatiketa horrek eragin txarra du Europako ekonomia osoan, eta bereziki, ETEen lehiakortasunean eta langileen joan-etorrian. Gainera, kontsumitzaileek zerbitzuak prezio lehiakorrean izateko duten aukera ere murrizten da. Aipatu behar da zerbitzuen sektorea oso garrantzitsua dela enplegurako, batez ere emakumeen enplegurako, eta beraz, zerbitzuen barne-merkatua guztiz taxutzean, emakumeek ere aukera berriak baliatu ahal izango dituztela. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak agerian utzi dute benetako barne-merkatua ezartzeko oztupo juridikoak ezabatzeak lehentasuna izan behar duela Lisboako Kontseilu Europarrean 2000ko martxoaren 23an eta 24an ezarri zen helburua erdiesteko, alegia, enplegu iraunkorra

¹ EO C 221, 2006.6.14koa, 113 or.

² EO C 43, 2005.2.18koa, 18 or.

³ Europako Parlamentuaren Irizpena, 2006ko otsailaren 16koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea), Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2006ko uztailaren 24koa (EO C 270 E, 2006.11.7koa, 1. or.) eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2006ko azaroaren 15koa. Kontseiluaren erabakia, 2006ko abenduaren 11koa.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

hobetzea, enplegu gehiago eta hobea izatea, hemendik 2010. urtera Europar Batasuna ezagutzen oinarritutako ekonomia lehiakorragoa eta dinamikoagoa bihurtzeko helburuarekin. Oztupo horiek kentzea ezinbesteko baldintza da Lisboako estrategia praktikan jartzean sortutako arazoak gainditu eta Europako ekonomiari bultzada berri bat emateko, eta aldi berean, Europako gizarte-eredu aurreratua babesteko. Hortaz, zerbitzuen barne-merkatua taxutzerakoan, garrantzitsua da orekari eustea merkatuen irekieraren eta zerbitzu publikoen, gizarte-eskubideen nahiz kontsumitzaileen eskubideen babesaren artean.

(5) Beraz, egokia da ezabatzea zerbitzu-emaileek estatu kideetan ezartzeko duten askatasunaren aurkako oztopoak nahiz estatu kideen artean zerbitzuak era askean zirkulatzearen aurkakoak. Gainera, zerbitzuen emaile eta jasotzailei tratatuko funtsezko bi askatasun horiek erabiltzeko behar den segurtasun juridikoa ere bermatu behar zaie. Zerbitzuen barne-merkatua oztopatzen duten faktoreek berdin eragiten dietenez beste estatu kideetan kokatu nahi diren eragileei zein beste estatu kideetan kokatu gabe bertan zerbitzuren bat ematen dutenei, egokia da zerbitzu-emaileari barne-merkatuaren barruan jarduten uztea, estatu kidean kokatuz, edo zerbitzuen zirkulazio askean oinarrituz. Zerbitzu-emaileek bi askatasun horien artean hautatzeko aukera izan behar dute, estatu kide bakoitzean duten garapen-estrategiaren arabera.

(6) Oztupo horiek ezin dira ezabatu tratatuko 43. eta 49. artikulua zuzenean aplikatuz, alde batetik, zabalkundearen ondoren, oso jardunbide zaila litzatekeelako herrialde nahiz Erkidegoko instituzioentzat estatu kideen aurka kasuz kasu jotzea arau-hausteen prozeduren bidez, eta bestetik, oztopo ugari ezabatzeak lehenik herrialdeetako legediak koordinatzea eskatzen duelako, eta koordinazio hori administrazioen arteko lankidetzarako sistema ezartze aldera ere beharrezkoa delako. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onartu bezala, Erkidegoko tresna legegile bat izateak zerbitzuen benetako barne-merkatua sortzeko aukera emango luke.

(7) Zuzentarau honek hainbat zerbitzuri mesede egiten dien zuzenbide-esparru orokorra ezartzen du, baina jarduera-mota edo lanbide bakoitzaren berezitasunak nahiz erregulazio-sistemak kontutan hartuz. Esparru horren oinarrian ikuspegi dinamiko eta selektiboa dago; lehenik azkar ezaba daitezkeen oztopoak ezabatzen dira, eta besteei dagokionez, gai espezifikoen ebaluazio-, kontsulta- eta harmonizazio-prozesua hasten da, modernizazio mailaka egiteko, herrialdeetako zerbitzu-jardueren erregulazio-sistemekin koordinatuta. Operazio hori ezinbestekoa da, 2010erako zerbitzuen benetako barne-merkatua taxutze aldera. Era orekatuan uztartu behar dira harmonizazio selektiboa egiteko neurriak, administrazioen arteko lankidetzarako neurriak, zerbitzuen emate askeari buruzko xedapenaren inguruko neurriak eta gai zehatzi buruz jokabide-kodeak prestatzea bultzatzeko xedea duten neurriak. Legedi nazionalak koordinatuz, Erkidegoko

zuzenbidearen integrazio-maila handia eta interes orokorreko helburuen babes handia bermatu beharra dago, batez ere kontsumitzaileen babesa, estatu kideen arteko konfiantza lortzeko behar-beharrezkoa baita. Zuzentarau honek interes orokorreko beste helburu batzuk ere kontuan hartu ditu, besteak beste, ingurugiroaren babesa, segurtasun nahiz osasun publikoa, eta Laneko zuzenbidea bete beharra.

(8) Komenigarria da ezartzeko askatasunari nahiz zerbitzuen zirkulazio askeari dagokionez zuzentarau honetan xedatutakoa lehiari irekiak dauden jardueretan baino ez aplikatzea. Hortaz, ezin ditugu estatu kideak interes ekonomiko orokorra duten zerbitzuak liberalizatzeraz derrigortu, ezta zerbitzu horiek ematen dituzten erakunde publikoak pribatizatzeraz, edota beste jardueretarako nahiz banaketa-zerbitzu jakinetarako dauden monopolioak abolitzera ere.

(9) Zerbitzu-jarduera bat atzitzeari edo erabiltzeari eragiten dioten baldintzei baino ez zaie aplikatuko zuzentarau hau. Horrela bada, ez zaie aplikatzen ibilgailuen trafikoaren baldintzei, lurralde-antolamenduari, hirigintzari, landa-antolamenduari eta eraikuntzari buruzko arauetako baldintzei, ezta arau horiek ez betetzeagatik ezarritako administrazio-zehapenei ere, arauok zerbitzuaren jarduerari espezifikoki eragin gabe ere, eta jarduera hori espezifikoki arautu gabe ere, zerbitzu-emaileek nahiz partikularrek haien jardunean errespetatu behar dituztelako.

(10) Zuzentarau honek ez die eragiten zerbitzu-emaile jakin batzuek funts publikoak atzitzeko dituzten betebeharrei. Betebehar horien barruan, besteak beste, emaileek finantziario publikoa jasotzeko baldintzak daude, baita kontratuetako baldintza espezifikoak, eta bereziki, funts publikoak jasotzeko bete behar diren kalitate-arauak ere, adibidez, gizarte-zerbitzuetako kalitate-arauak.

(11) Zuzentarau honek ez die trabarik egingo estatu kideek komunikabideetan pluralismoa eta kultura-nahiz hizkuntza-aniztasuna sustatu edota babesteko Erkidegoko zuzenbidearen arabera hartu dituzten neurriak, jarduera horien finantziazioa barne. Zuzentarau honek ez die estatu kideei eragozten prentsa-askatasunaren nahiz adierazpen-askatasunaren inguruko funtsezko printzipio eta arauak aplikatzea. Zuzentarau honek ez du eraginik estatu kideetan nazionalitate arrazoiengatik edo tratatuko 13. artikuluan aipatutako arrazoiengatik diskriminatzea debekatzen duten legeengatik.

(12) Zuzentarau honen helburua da ezartzeko askatasuna nahiz estatuen arteko zerbitzuen zirkulazio askea bermatzeko zuzenbide-esparrua sortzea, ez zuzenbide penala harmonizatu edo kaltetzea. Hala ere, estatu kideek ez dute aukerarik izan behar zerbitzuen emate askea murrizteko, ez zerbitzu-jarduera baten atzipenari edo jardunari eragiten dioten zuzenbide penaleko xedapenen bidez, ezta zuzentarau honetan ezarritako arauari muzin eginez ere.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(13) Era berean, garrantzitsua da zuzentarau honek errespetatzea tratatuko 137. artikuluan oinarrituta egin daitezkeen Erkidegoaren ekimenak, 136. artikuluko helburuak, enpleguaren sustapenari eta bizi- nahiz lan-baldintzak hobetzeari buruzkoak, erdiesteko.

(14) Zuzentarau honek ez die eragingo lan-baldintzen inguruan (gehienezko lanaldiak eta gutxieneko atsedenaldiak barne), urteroko oporraldi ordainduen gutxieneko iraupenaren inguruan, gutxieneko soldataren zenbatekoen inguruan, edota laneko osasun, segurtasun eta higienezko inguruan estatu kideek Erkidegoko zuzenbidearen arabera aplikatzen dituzten neurriek, ezta gizarte-hizketakideen arteko harremanek (hitzarmen kolektiboak negoziatu eta sinatzeko eskubidea, greba eskubidea eta herrialdeko praktiken arabera eta Erkidegoaren zuzenbidea errespetatuz ekintza sindikalera jotzeko eskubidea barne) edo aldi baterako laneko enpresek emandako zerbitzuei ere. Zuzentarau honek ez du eraginik izango estatu kideek gizarte-segurantzaren alorrean duten legedian.

(15) Zuzentarau honek estatu kideetan aplikagarri diren eta Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunean jasota dauden funtsezko eskubideak errespetatzen ditu, baita tratatuko 43. eta 49. artikuluetan ezarritako oinarritzko askatasunekin berradiskidetzen dituzten azalpen konkomitenteak ere. Oinarritzko eskubide horiek barne hartzen dute ekintza sindikalekara jotzeko eskubidea, Erkidegoko zuzenbidea errespetatzen duten legedi eta praktika nazionalen arabera.

(16) Zuzentarau honek estatu kideren batean kokatutako zerbitzu-emailei baino ez die eragiten, eta ez ditu kanpo-alderdiak jorratzen. Ez die eragiten zerbitzuen merkataritzaren inguruko nazioarteko erakundeen negoziazioek, batez ere, zerbitzuen merkataritzari buruzko akordio nagusiaren (GATS) esparrukoek.

(17) Zuzentarau honek dirusari baten truke ematen diren zerbitzuak baino ez ditu jasotzen. Interes orokorreko zerbitzuak ez dira tratatuko 50. artikuluko definizioaren barruan sartzen, eta beraz, zuzentarau honen aplikazio-esparruan ere ez dira sartzen. Interes ekonomiko orokorra duten zerbitzuak dirusari baten truke ematen direnez, zuzentarau honen aplikazio-esparruaren barruan sartzen dira. Hala ere, interes ekonomiko orokorra duten zenbait zerbitzu, garraioaren sektorekoak kasu, zuzentarau honen aplikazio-esparrutik kanpo geratzen dira, eta interes ekonomiko orokorra duten beste zerbitzu batzuk, adibidez, posta-zerbitzuen esparrukoak, salbuetsita daude zuzentarau honetan zerbitzuen emate askeari buruz jaso den xedapenetik. Zuzentarau honek ez du jorratzen interes ekonomiko orokorra duten zerbitzuen finantziarioa, eta eskumenei buruzko Erkidegoaren arauen arabera, ez zaie aplikagarri estatu kideek ematen dituzten laguntza-sistemei, batez ere gizarte-arlokoek. Zuzentarau honek ez ditu jorratzen interes orokorreko zerbitzuei buruzko Batzordearen Liburu Zuriari jarraitzeko neurriak.

(18) Komenigarria da finantza-zerbitzuak zuzentarau honen aplikazio-esparrutik kanpo uztea, jarduera horiek jada badutelako zerbitzuen benetako barne-merkatu bat taxutzeko Erkidegoaren legedi espezifikoak. Ondorioz, salbuespen horrek finantza-zerbitzu guztiei eragiten die, besteak beste, bankuen zerbitzuei, kreditukoek, aseguruetakoei (berraseguruak barne), lan-pentsio edo norbanakoen pensioetakoei, baloreetakoei, inbertsio-funtsetakoei, ordainketakoei, inbertsioaren inguruko aholkularitzakoei, eta oro har, kreditu-erakundeen jardunari eta horien aritzeari buruzko Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/48/EE Zuzentarauko I eranskinean, 2006ko ekainaren 14koan⁽¹⁾, zerrendatzen diren zerbitzuei.

(19) Kontutan hartuz 2002an komunikazio elektronikoen zerbitzu eta sareei nahiz horiei lotutako baliabide eta zerbitzuei buruzko hainbat legegintza-tresna aplikatu zela, eta horien bidez ezarri zela (batez ere, banan-banako baimeneko erregimenak ezabatuz) barne-merkatuan jarduera horien atzipena errazteko araugintza-esparrua, komenigarria da aipatutako tresnekin araututako alderdiak zuzentarau honen aplikazio-esparrutik kanpo uztea.

(20) Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/19/EE Zuzentarauak, 2002ko martxoaren 7koak, komunikazio elektronikoen, horiei lotutako baliabideen eta haien arteko konexioen atzipenari buruzkoak (Atzipen zuzentaraua)⁽²⁾, Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/20/EE Zuzentarauak, 2002ko martxoaren 7koak, komunikazio elektronikoen sare eta zerbitzuen baimenei buruzkoak⁽³⁾ (Baimen zuzentaraua), Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/21/EE Zuzentarauak, 2002ko martxoaren 7koak, komunikazio elektronikoen sare eta zerbitzuak erregulatzeke esparru komunari buruzkoak⁽⁴⁾ (Esparru zuzentaraua), Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/22/EE Zuzentarauak, 2002ko martxoaren 7koak, komunikazio elektronikoen sare eta zerbitzuei dagokienez erabiltzaileek duten zerbitzu unibertsalari eta haien eskubidei buruzkoak⁽⁵⁾ (Zerbitzu unibertsalaren zuzentaraua) eta Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/58/EE Zuzentarauak, 2002ko uztailaren 12koak, komunikazio elektronikoen sektorean datu pertsonalei ematen zaientzat tratamenduari eta intimitatearen babesari buruzkoak⁽⁶⁾ (Pribatutasunari eta komunikazio elektronikoei buruzko zuzentaraua) babestutako komunikazio elektronikoen sare nahiz

¹ EO L 177, 2006.6.30ekoa, 1 or.

² EO L 108, 2002.4.24koa, 7 or.

³ EO L 108, 2002.4.24koa, 21 or.

⁴ EO L 108, 2002.4.24koa, 33 or.

⁵ EO L 108, 2002.4.24koa, 51 or.

⁶ EO L 201, 2002.7.31koa, 37. or. 2006/24/EE zuzentarauaren bidez (EO L 105, 2006.4.13koa, 54. or.) aldatutako zuzentaraua.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

zerbitzuen inguruan, zuzentarau honen aplikazio-esparruari dagokionez egin diren salbuespenak ez zaizkie zuzentarau horietan zehazki jorratutako alderdiei bakarrik aplikatuko, zuzentaruak estatu kideei esplizituki herrialde-mailako neurriak hartzeko aukera ematen dien alderdietan ere, salbuespenok aplikatuko dira.

(21) Garraio-zerbitzuak, hiri-garraioa, taxi zein anbulantziak nahiz portu-zerbitzuak barne, zuzentarau honen aplikazio-esparrutik kanpo geratu behar dira.

(22) Zuzentarau honetan osasun-zerbitzuekin egin den salbuespenak osasuneko profesionalek beren pazienteak ebaluatzeko nahiz horien osasun-egoera mantendu edo hobetzeko ematen dieten osasun- eta farmazia-zerbitzuei ere eragin behar die, betiere, jarduerok zerbitzua ematen den estatu kidean erregulatuta dauden lanbideei erreserbatzen bazaizkie.

(23) Zuzentarau honek ez dio eragingo osasun-zerbitzu baten onuradunarena ez den beste herrialde batean emandako osasun-zerbitzuen gastuen itzulketari. Justizia Auzitegiak hainbat aldiz eman du horren inguruko erabakia, eta pazienteen eskubideak aintzat hartu ditu. Segurtasun eta argitasun juridiko handiagoa lortze aldera, garrantzitsua da auzi hori Erkidegoaren beste tresnaren batekin tratatzea, Kontseiluaren 1408/71 (EEE) Erregelamenduak, 1971ko ekainaren 14koak, besteren konturako langileei eta Erkidegoaren barruan mugitzen diren haien senitartekoei gizarte segurantzako erregimenak aplikatzeari buruzkoak, tratatu gabeko alderdietan behintzat⁽¹⁾.

(24) Halaber, zuzentarau honen aplikazio esparrutik kanpo utzi beharra dago ikus-entzunezko zerbitzuak, zinema-aretoak barne, berdin dio zein den transmisio-era. Gainera, zuzentarau hau ez zaie aplikatu behar estatu kideek ikus-entzunezko sektorean emandako laguntzei, eskumenari buruzko Erkidegoaren arauak arautzen baitituzte.

(25) Ekokia da diru truke egiten diren joko-jarduerak zuzentarau honen aplikazio-esparrutik kanpo uztea, loteriak eta apustuak barne, jarduera horien espezifikotasuna dela-eta, estatuak ordena publikoarekin eta kontsumitzaileen babesarekin erlazionatutako politikak aplikatzea eskatzen baitute.

(26) Zuzentarau honek ez dio kalterik egiten tratatuko 45. artikuluaen aplikazioari.

(27) Zuzentarau honek ezin die eragin estatuek, estatuak enkargatutako emaileek edo estatuak aintzat hartutako benefizentzia-elkarteek etxebizitzaren,

umeen zaintzaren eta familia nahiz pertsona behartsuen laguntzaren esparruan ematen dituzten gizarte-zerbitzuei nazio, eskualde edo tokiko mailan, betiere, helburu jakin batekin, familiak diru-sarrera urriak izateagatik, edo independentziarik ia edo batere ez izateagatik, aldi baterako edo betirako behar-egoeran dauden pertsonen laguntza bermatu, eta bazterturik gera ez daitezten. Zerbitzuok ezinbestekoak dira giza duintasunaren nahiz osotasunaren funtsezko eskubideak bermatzeko; gainera, gizarte-kohesioaren nahiz elkartasunaren printzipioen erakusgarri dira, eta hortaz, zuzentarau honek ez die eragin behar.

(28) Zuzentarau hau ez zaio gizarte-zerbitzuen finantziarioari aplikatuko, ezta horri dagokion laguntza-sistemari ere.

Gizarte-zerbitzuak interes publikoaren nahiz gizarte kohesioaren mesederako direla ziurtatze aldera estatu kideek ezarri dituzten irizpide edo baldintzei ere ez die eragingo. Era berean, zuzentarau honek ezin dio eragin estatu kideetako gizarte-zerbitzuen zerbitzu unibertsalaren printzipioari.

(29) tratatuan zuzenbideko oinarri espezifikoak aurreikusi direnez zerga-alorrari dagokionez, eta kontuan hartuta alor horretan Erkidegoak jada praktikan jarritako tresnak, egokia da zuzentarau honen aplikazio-esparrutik kanpo uztea zergen alorra.

(30) Erkidegoak badu jada legedi ugaria zerbitzu-jardueren inguruan. Zuzentarau honek Erkidegoaren ondare hori osatzeko xedea du. Zuzentarau honek Erkidegoaren beste tresna batzuekin egon daitezkeen talka-puntuak zehaztu eta jorratzen ditu, baita salbuespenen bidez ere. Hala ere, arauen bat aurreikusi beharra dago zuzentarau honen xedapenen nahiz Erkidegoaren beste tresna baten xedapenen artean talka dagoen aparteko kasuetarako. Ezartzeko eskubidea nahiz zerbitzuen zirkulazio askea arautzen duten tratatuko arauak jarraiki zehaztuko da horrelako talkarik dagoen ala ez.

(31) Zuzentarau hau bat dator Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/36/EE Zuzentaruarekin (2005eko irailaren 7koa, kualifikazio profesionalen aintzatespenari buruzkoa)⁽²⁾, eta ez du eraginik horren gainean. Lanbide-kualifikazioaren ingurukoak ez diren gaiak jorratzen ditu, besteak beste, lanbide-erantzukizuneko aseguruak, merkataritza-komunikazioak, diziplina anitzeko jarduerak eta administrazioaren sinpletzea. Mugez gairik aldi baterako zerbitzuak emateari dagokionez, zerbitzuen emate askeari buruzko zuzentarau honetako xedapen baten salbuespenak bermatzen du 2005/36/EE zuzentaruaren II tituluaren eraginik ez duela izango. Beraz, zerbitzuen emate askeari buruzko xedapenak ez du eraginik izango zerbitzua ematen den estatu kidean aipatutako zuzentaruaren arabera aplikagarri diren neurrietan.

(32) Zuzentarau honek errespetatu egiten du kontsumitzaileen babesari buruzko Erkidegoaren

¹ EO L 149, 1971.7.5ekoa, 2. or. Azken aldiz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 629/2006 (EE) Erregelamenduaren bidez (EO L 114, 2006.4.27, 1. or.) aldatutako erregelamendua.

² EO L 255, 2005.9.30ekoa, 22 or.

legedia, besteak beste, Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/29/EE zuzentaraua, 2005eko maiatzaren 11koa, barne-merkatuko kontsumitzaileekiko harremanetan enpresek izan dezaketen merkataritza-jardun desleialari buruzkoa (merkataritza-jardun desleialari buruzko zuzentaraua) ⁽¹⁾ eta Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/2004 (EE) erregelamendua, 2004ko urriaren 27koa, kontsumitzaileak babesteko legedia aplikatu behar duten herrialde-autoritateekiko lankidetzari buruzkoa (Kontsumitzaileen babeserako lankidetzari buruzko erregelamendua) ⁽²⁾.

(33) Zuzentarau honi dagokionez, «zerbitzu» kontzeptuak era askotako jarduerak izendatzen ditu, etengabe eboluzionatzen dutenak. Besteak beste hauek aipa daitezke; enpresentzako zerbitzuak, kudeaketaren inguruko aholkularitza zerbitzuak kasu; egiaztatze- eta proba-zerbitzuak; mantentze-zerbitzuak; bulegoen mantentze-zerbitzuak; publizitatearekin edo langileria kontratatzearekin erlazioatutakoak nahiz merkataritza-agenteen zerbitzuak. Zerbitzu kontzeptuaren barruan sartzen dira, baita ere, enpresa zein kontsumitzaileentzako zerbitzuak, hala nola, zuzenbide- edo zerga-aholkularitza, eta higiezinekin (higiezinen agentziak kasu) edo eraikuntzarekin erlazioatutako zerbitzuak (arkitektoen zerbitzuak, banaketa, ferien antolakuntza, ibilgailuen alokairua eta bidaiagentziak barne). Kontsumitzaileentzako zerbitzuak ere barruan sartzen dira, adibidez, turismoarekin erlazioatutakoak (turismo-gidariak, olgetako zerbitzuak, kirol-zentroak eta jolas-parkeak barne), eta, zuzentarauaren aplikazio-esparrutik kanpo ez dauden neurrian, etxez-etxeko zerbitzuak, adinduentzako laguntza-zerbitzuak kasu. Aldi berean, emailearen eta jasotzailearen arteko gertutasuna eskatzen duten zerbitzuak ere izan daitezke jarduera hauek, baita emailearen edo jasotzailearen joan-etorria inplikatzeko zerbitzuak edota urrunetik eman daitezkeen zerbitzuak ere (interneten bidez ematekoak barne).

(34) Justizia-auzitegiaren jurisprudentziaren arabera, kasuz kasu eta ezaugarri guztiak kontuan hartuta ebaluatu beharra dago jarduera jakin batzuk “zerbitzua” diren ala ez, eta bereziki finantziario publikoa duten edo erakunde publikoek ematen dituzten jarduerak estatu kideetan zein eratan ematen, antolatzen eta finantzatzen diren. Horrela bada, Justizia-auzitegiak onartu egin du ordainketaren funtsezko ezaugarria dela zerbitzu jakin batentatik ordainketa izatea, eta onartu egin du baita ere, ordainketa hori ez dela jazotzen Estatuak diruzko ordainik gabe bideratzen dituen jardueretan edo Estatuaren izenean gizarte-, kultura-, hezkuntza- eta zuzenbide-arloan dituen betebeharren karira bideratzen diren jardueretan, hala nola, herrialdeko hezkuntza-sistemaren nahiz ekonomia-jarduera ez diren Gizarte Segurantzako erregimenen

kudeaketaren esparruan egindako ikastaroetan. Jasotzaileek kuotak ordaintzea, adibidez, ikasleek sistemaren funtzionamendurako gastuetarako ekarpena egiteko ordaintzen dituzten akademia- edo matrikula-tasak, ez da ordainketa, zerbitzua gehienbat funts publikoekin finantzatuta jarraitzen duelako. Hortaz, jarduera horiek ez dira sartzen tratatuko 50. artikuluan agertzen den «zerbitzu»aren definizioan, eta ondorioz, ez dira sartzen zuzentarau honen aplikazio-esparruaren barruan.

(35) Irabazi-asmorik gabeko kirol amateurreko jarduerak garrantzi handia dute gizarte-mailan. Gizarte- edo olgeta-xedeak baino ez dituzte izaten maiz. Hortaz, Erkidegoaren legediari dagokionez, ezin dira ekonomia-jarduerak izan, eta zuzentarau honen aplikazio-esparrutik kanpo geratu behar dira.

(36) «Emaile» kontzeptuaren barruan sartu behar da estatu kideren bateko nazionalitatea duen eta ezartzeko askatasuna nahiz zerbitzuen zirkulazio askea baliatuz zerbitzu-jardueraren batean ari den pertsona fisiko edo juridiko oro. Horrela bada, «emaile» kontzeptua ez da bakarrik zerbitzuen zirkulazio askearen esparruan mugak zeharkatuz ematen diren zerbitzuetara mugatzen, operadore bat estatu kideren batean zerbitzu-jarduerak bideratzeko kokatzen deneko kasuak ere hartzen baititu. Gainerakoan, ez da «emaile» kontzeptuaren barruan sartzen estatu kide batean kokatutako hirugarren estatu baten sukurtsalen kasua, zeren eta Tratatuaren 48. artikularen arabera, estatu kideren bateko legediaren arabera osatu diren eta egoitza, administrazio zentrala edo jardueragune nagusia Erkidegoaren barruan duten sozietateek baino ez baitute ezartzeko askatasuna eta zerbitzuen zirkulazioa baliatzeko aukera. «Jasotzaile» nozioaren barruan sartzen dira Erkidegoaren ekintzetan jasotako eskubideen onuradun diren hirugarren herrialdeetako biztanleak. Erkidegoaren ekintzen artean hauek aipa daitezke, besteak beste; 1408/71 (EEE) Erregelamendua; Kontseiluaren 2003/109/EE Zuzentaraua, 2003ko azaroaren 25ekoa, iraupen luzeko hirugarren estatuaren egoiliarren estatutuari buruzkoa ⁽³⁾; Kontseiluaren 859/2003 (EE) Erregelamendua, 2003ko maiatzaren 14koa, 1408/71 (EE) Erregelamenduaren eta 574/72 (EEE) Erregelamenduaren xedapenak nazionalitate arrazoi hutsengatik estalirik ez dauden hirugarren herrialdeetako biztanleei ere zabaltzen dizkiena ⁽⁴⁾, eta Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/38/EE zuzentaraua, 2004ko apirilaren 29koa, Batasuneko biztanleek eta haien senideek estatu kideen lurraldeetatik zirkulatze eta bertan bizitzeko duten eskubideari buruzkoa ⁽⁵⁾. Gainera, estatu kideek beren lurraldeetan dauden hirugarren herrialdeetako beste biztanleei ere zabal diezaiekete jasotzailearen kontzeptua.

¹ EO L 149, 2005.6.11koa, 22 or.

² EO L 364, 2004.12.9koa, 1. or. 2005/29/EE Zuzentarauaren bidez aldatutako erregelamendua.

³ EO L 16, 2004.1.23koa, 44 or.

⁴ EO L 124, 2003.5.20koa, 1 or.

⁵ EO L 158, 2004.4.30ekoa, 77 or.

(37) Emaileen ezarpen-lekua Justizia Auzitegiaren jurisprudentziari jarraiki zehaztu behar da, izan ere, jurisprudentzia horren arabera, ezarpen kontzeptuak ekonomia-jarduera batean aritzea eskatzen du, establezimendu finko baten bitartez eta epe zehaztugabe batean. Enpresa bat epe jakin baterako sortzen denean, edo enpresak bere jarduera bideratzeko eraikina edo instalazioak errentatzen dituenean ere betetzen da betebeharrak. Estatu kideak zerbitzu jakin bati dagozkion baimenak epe mugatu batez baino ematen ez dituenean ere bete daiteke. Ez da beharrezkoa establezimenduak filial, sukurtsal edo agentzia izaera hartzea, emailearen langileriak berak edo era iraunkorrean jarduteko enpresaren baimena jaso duen pertsona independente batek zuzendutako bulegoa izan daiteke, agentzien kasuan bezala. Definizio horren arabera, postahelbide bat ezin da establezimendu izan; zerbitzu-emailearen establezimendua izan dadin, ekonomia-jarduera batean aritu beharra baitago ezarpen-lekuan. Zerbitzu-emaile batek ezarpen-leku bat baino gehiago baditu, garrantzitsua da zehaztea zein ezarpen-lekutik ematen den zerbitzua. Zerbitzu jakin bat zer ezarpen-lekutik ematen den zehaztea zaila den kasuetan, zerbitzu zehatz horrekin lotutako jarduerak egiteko zerbitzu-emaileak baliatzen duen lekua hartuko da ezarpen-lekutzat.

(38) «Pertsona juridikoa» kontzeptuak, ezarpen-baldintzei buruz Tratatuan jasotako xedapenen arabera, askatasuna ematen die operadorei beren jarduera bideratzeko egokien deritzoten forma juridikoa aukeratzeko. Beraz, Tratatu zentzuan, pertsona juridikoen barruan sartzen dira estatu kidearen legediari jarraiki sortutako erakunde guztiak edo legedi horren arabera araututakoak, dena delakoa horien forma juridikoa.

(39) «Baimentze-erregimena» kontzeptuaren barruan sartu behar dira, besteak beste, baimenak, lizentziak, homologazioak edo emakidak emateko administrazio-prozesuak, baita jarduera batean aritzeko profesionalen elkargoren batean, erregistroren batean, zerrenda ofizialen batean, edo datu-baseren batean inskribaturik egoteko beharra, erakunderen batekin ituna izateko beharra edota txartel profesionala lortzeko beharra ere. Erabaki formal baten ondorioz ez ezik, eskumena duen autoritatearen isiltasun administratibotik eratorritako erabaki implizituaren ondorioz ere eman daiteke baimen bat, baita interesatuak delako jarduerarekin hasteko, edo era legalean jarduteko, deklarazio bat hartu izanaren adierazpena jaso arte itxaron beharretik eratorritako erabaki implizitutik ere.

(40) «Interes orokorreko premiazko arrazoia» kontzeptua, zuzentarau honen preskripzio jakin batzuetan aipatua, Justizia-azitegiak garatu du Tratatu 43. eta 49. artikuluen inguruko bere jurisprudentzian, eta eboluzionatzen jarrai dezake. Justizia-azitegiaren jurisprudentzian aintzat hartutako nozioak alor hauek hartzen ditu, gutxienez: ordena publikoa, segurtasun eta osasun publikoa (tratatu 46. eta 55. artikuluen zentzuan), gizartearen ordena mantentzea, gizarte-politikako helburuak,

zerbitzu-jasotzaileen babesa, kontsumitzailearen babesa, langileen babesa (horien gizarte-babesa barne), animalien ongizatea, Gizarte Segurantzako erregimenen finantza-oreka babestea, iruzurrei aurre hartzea, lehia desleialari aurre hartzea, ingurugiroaren eta hiri-ingurunearen babesa (hiri- eta landa-plangintza barne), hartzekodunen babesa, justizia-administrazio ona bermatzea, bide segurtasuna, jabetza intelektualaren eta industrialaren babesa, kultura-politikako helburuak (osagai desberdinen adierazpen-askatasuna, eta bereziki, gizartearen balore kultural, sozial, erlijiozko eta filosofikoak barne), hezkuntza-maila altua bermatzea beharra, prentsa-aniztasuna mantentzea, herrialdeko hizkuntza sustatzea, herrialdeko ondare historiko eta artistikoaren kontserbazioa eta albaitaritze-politika.

(41) Justizia-azitegiak egindako interpretazioaren arabera, “ordena publikoaren” kontzeptuaren barruan sartzen da gizartearen interes funtsezkoen bati eragiten dion eta nahikoa garrantzia duen benetako mehatxuaren aurreko babesa, eta bereziki, giza duintasunarekin, egoera ahulean dauden heldu nahiz adingabeen babesarekin eta animalien ongizatearekin erlacionatutako gaiak ere har ditzake. Era berean, segurtasun publikoaren kontzeptuak babes zibileko gaiak hartzen ditu.

(42) Administrazio-prozeduren inguruko arauak ez dute prozedura horien harmonizazioa jorratu behar, baimentze-erregimen, prozedura eta formaltasun astunegiak ezabatzeko xedea izan behar dute ostera, ezartzeko askatasuna eta horren ondorioz zerbitzu-enpresa berriak sortzea oztopatzen dutelako.

(43) Zerbitzu-jardueren atzipenari eta horiek bideratzeari dagokionez, zailtasun nagusietako bi dira administrazio-prozeduren luzera eta segurtasun juridikoaren falta, eta batez ere, ETEek pairatzen dituzte. Horregatik, eta Erkidego- nahiz herrialde-mailan administrazio-praktika onak lortzeko eta praktikok modernizatzeko beste ekimen batzuetan bezala, egokia da administrazioa sinplifikatzeko printzipioak ezartzea, zehazki, aurretiaz derrigorrezko baimena nahitaezkoa den kasuetan baino ez eskatuz, eta autoritate eskumendunen isilbidezko baimenaren printzipioa aplikatuz epe jakin bat agortu ondoren. Modernizazio-ekimen horren helburua da, operadoreen datuak eguneratzeko eta garden mantentzeko eskakizunak betetzen direla bermatzeaz gain, besteak beste, zentzurik gabeko izapideek, izapide zailegi edo garestiegiak, eragiketen bikoizketek, dokumentuak aurkezteko formaltasun burokratikoek, autoritate eskumendunen botere arbitrarioak, zehaztu gabeko epeak, epe luzeegiak, indarraldi mugatuarekin emandako baimenek edo neurrigabeko gastu nahiz zehapenek eragiten dituzten atzerapen, kostu eta disuasio-efektuak ezabatzea. Praktika horien disuasio-efektuak bereziki garrantzitsuak dira beren jarduerak beste estatu kideetan bideratu nahi dituzten emaileentzat, eta modernizazio koordinatua eskatzen dute hogeita bost estatu kidetara zabalduetako barne-merkatuan.

(44) Egoki denean, Batzordeak erkidego-mailaak ezarritako formulario harmonizatuak sartu behar

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

izango dituzte estatu kideek, ezartzeko ziurtagirien, frogagirien edo bestelako edozein dokumenturen baliokide gisa erabil daitezzen.

(45) Prozedura eta izapideak sinplifikatzeko beharra aztertze aldera, estatu kideek bereziki kontuan hartu behar dute beharrezkoak diren, zein kopurutan, bikoizten diren, kostuak, argitasuna, eskuragarritasuna eta, delako zerbitzu-emailei dagokionez, sor ditzaketan zailtasun praktikoak eta atzerapenak.

(46) Zerbitzu-jardueren atzipena eta horiek barne-merkatuan bideratzea errazte aldera, egokia da estatu kide guztientzako komuna den helburua ezartzea; administrazioa sinplifikatzea, eta zehazki informaziorako eskubideari, prozedura elektronikoei eta baimentze-erregimenetarako esparrua sortzeari buruzko xedapenak ezartzea. Nazio-mailan bestelako neurriak har daitezke helburu hori lortzeko, adibidez, zerbitzu-jardueri aplikatu beharreko prozedura eta izapideen kopurua murriztea, eta prozedura nahiz izapide horiek interes orokorreko helburua lortzeko nahitaezkoak direla nahiz haien arteko gainjarpenik ez dagoela ziurtatzea, edukiaren nahiz xedearen aldetik.

(47) Administrazioa sinplifikatze aldera, eskakizun formalak, hala nola, jatorrizko dokumentuak, kopia konpultsatuak edo itzulpen konpultsatuak aurkeztea, ez dira orokorki inposatu behar, ez bada objektiboki hori justifikatzen interes orokorreko premiazko arrazoiren batek, adibidez, langileen babesak, osasun publikoak, ingurugiroaren babesak edo kontsumitzaileen babesak. Beharrezkoa da bermatzea, baita ere, baimenak herrialde osoan zerbitzu-jarduera bat atzitzeko edo horretan aritzeko balio duela, betiere, ez bada objektiboki justifikatzen interes orokorreko premiazko arrazoiren batengatik establezimendu bakoitzerako banako baimenak exijitza (adibidez, merkataritza-gune handien ezarpen bakoitzerako) edo baimenak herrialdeko eremu jakin batera mugatzea.

(48) Administrazio-prozedurak are gehiago sinplifikatze aldera, komenigarria da bermatzea emaile orok hizketakide bakarra duela prozedura eta izapideak egiteko (aurrerantzean, «leihatila bakarra» deituko zaio). Estatu kide bakoitzeko leihatila bakarren kopurua tokiko nahiz eskualdeko eskumenen arabera eta dagozkion jardueren arabera alda daiteke. Berez, leihatila bakarra sortzeak ez luke interferentziarik sortu beharko herrialde bakoitzeko sistemaren barruan eskumendun autoritateen artean eskumenak banatzerakoan.

Autoritate batek baino gehiagok eskumenak dituztenean eskualdeko edo tokiko mailan, horietako batek bere gain har dezake leihatila bakarra bideratzeko eta besteekin koordinatzeko erantzukizuna. Administrazio-autoritateez gain, merkataritza- edo lanbide-ganberek, profesionalen elkargoek edo funtzio hori estatu kideen aldetik eskuduntzan jaso duten erakunde pribatuek ere osa ditzakete leihatila bakarrak. Leihatila bakarren xedea emailei laguntza garrantzitsua ematea da, zerbitzu-jardueraren bat atzitzeko behar diren dokumentuak

eman ditzakeen autoritate eskudun gisa, nahiz autoritate eskudun horren eta emailearen arteko bitartekari gisa.

(49) Leihatila bakarretan kobratzen diren tarifek, egin beharreko prozedura eta izapideen kostuarekiko proportzionalak behar dute izan. Hori gorabehera, estatu kideek aukera izango dute leihatila bakarrei agindua emateko bestelako administrazio-eskubideak kobratzeko, adibidez, ikuskaritza-erakundeen zerbitzu-sariak.

(50) Beharrezkoa da emaile nahiz jasotzaileek erraz eskuratzeko informazio-mota jakin batzuk. Estatu kide bakoitzari dagokio zuzentarau honen esparruaren barruan zehaztea zein bide erabiliko den emaile nahiz jasotzaileei informazioa helarazteko. Interneten informazioa jarriz bete dezakete estatu kideek emaile nahiz jasotzaileek beharrezko duten informazioa erraz eskuratzeko moduan dagoela eta publikoak informazio hori oztopo gabe atzi dezakeela bermatzeko duten betebeharra. Emandako informazioa argia eta zalantzarik gabekoa izan behar da.

(51) Zehazki, emaile zein jasotzaileei ematen zaien informazioaren barruan sartu beharra dago prozedura nahiz izapideei buruzko informazioa, autoritate eskumendunen harremanetarako datuak, datu-base zein erregistro publikoetara sartzeko baldintzak, emaile nahiz jasotzaileei laguntza tekniko eman diezaieketen elkarte zein erakundeen harremanetarako datuei buruzko informazioa eta eskura dauden errekurtso-bideei buruzko informazioa ere. Autoritate eskumendunek emaile eta jasotzaileei asistentzia emateko duten betebeharraren barruan ez da sartzeko banako kasuetan aholkularitza juridikoa ematea. Hala ere, eskakizunak interpretatu edo aplikatzeko erari buruzko informazio orokorra eman beharra dago. Estatu kideek zehaztu behar dute nork duen erantzukizuna emandako informazioa okerra edo engainagarria izatekotan.

(52) Emaile, jasotzaile eta autoritate eskumendunen onuraren alde, funtsezkoa da epe laburrean prozedura eta izapideak bideratzeko sistema elektronikoa sortzea, horrela zerbitzu-jardueren inguruko administrazio-prozedurak eta -izapideak sinplifikatzeko. Eginbehar hori betetzeak herrialdeetako legediak eta zerbitzuei aplikagarri zaizkien arauak aldatzea ekar dezake. Betebehar horrek ez die estatu kideei eragotzi behar bide elektronikoez gain, bestelako bideak erabiltzea prozedura eta izapide horiek betetzeko. Prozedura eta izapide horiek urrunetik egiteko aukera egon berrak, estatu kideek prozedura eta izapideok mugez gandi egiteko aukera berma dezatela eskatzen du zehazki. Betebehar horrek ez die eragiten berezko izaerarengatik urrunetik egin ezin diren prozedura edo tramiteei. Gainera, horrek ez dio eragiten estatu kideek hizkuntzen erabileraren inguruan duten legediari.

(53) Zerbitzu-jarduera jakin batzuetarako lizentzia ematerakoan, eskatzailearen eta autoritate eskumendunaren arteko elkarriketa eska daiteke,

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

eskatzailearen zintzotasuna eta egokitasuna ebaluatzeko. Kasu horietan, ez da egokitzat jotzen formalitateak bide elektronikoak baliatuz betetzea.

(54) Zerbitzu-jarduera bat atzitzeko autoritate eskumendunen baimena ez da eskatuko diskriminazio-ezaren, beharraren eta proportzionaltasunaren irizpideak bete ezean. Zehazkiago, horrek esan nahi du kontrola *a posteriori* egiteak eraginkortasunik izango ez lukeen kasuetan baino ez dela onargarria baimena, zerbitzuen akatsak *a posteriori* kontrolatzea ezinezkoa delako eta kontrola *a priori* ez egiteak arriskuak ekarriko lituzkeelako. Gai horri buruz zuzentarau honetan jasotako xedapenek ezin dituzte baimentze-erregimenak justifikatu baldin eta Erkidegoaren Zuzenbideko beste tresna batzuek dagoeneko debekatu badituzte, hala nola, Erkidegoan sinadura elektronikorako esparrua ezartzen duen Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko abenduaren 13ko 1999/93/EE zuzentarauak ⁽¹⁾, edo Informazioaren gizarteko zerbitzuen alderdi juridiko jakin batzuei buruzko eta, bereziki, barne-merkatuko merkataritza elektronikoiari buruzko Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 8ko 000/31/EE zuzentarauak (Merkataritza elektronikoiari buruzko zuzentaraua)⁽²⁾. Elkar ebaluatzeko prozesuek zehaztuko dute Erkidego-mailan zein jarduera-motatan ezabatu behar diren baimentze-erregimenak.

(55) Zuzentarau honek ez du eraginik izan behar estatu kideek baimena emateko baldintzak ez betetzekotan baimenok *a posteriori* kentzeko duten aukeran.

(56) Justizia-azuzitegiaren jurisprudentziari jarraiki, baimentze-erregimenak eta bestelako murrizketak aplikatzea justifika dezaketen interes orokorreko premiazko arrazoiak dira osasun publikoko helburuak, kontsumitzaileen babesekoak, animalien osasunekoak eta hiri-ingurunearen babesekoak. Hala ere, ezaugarri horiek dituzten baimentze-erregimeneak edo murrizketek ezin dute inolaz ere nazionalitate-arrazoiengatik diskriminatu. Gainera, beti gorde behar dira beharraren eta proportzionaltasunaren printzipioak.

(57) Zuzentarau honetako baimentze-erregimenei buruzko xedapenek erreferentzia egiten diete zerbitzu-jardueraren bat atzitzeko edo horretan jarduteko operadoreek autoritate eskumendunaren baimena lor dezatela eskatzen duten kasuei. Horrek ez dio eragingo zerbitzu jakin bat emate aldera autoritate eskumendunek erakunde publikoak edo pribatuak sortzeko duten aukerari, ezta zerbitzu jakin bat emateko autoritate eskumendunek kontratu publikoen arauen menpeko kontratua sinatzeko duten aukerari ere, zuzentarau honek ez baititu arau horiek jorratzen.

¹ EO L 13, 2000.1.19koa, 12 or.

² EO L 178, 2000.7.17koa, 1 or.

(58) Zerbitzu-jardueren atzipena eta horietan aritzea errazteko, garrantzitsua da baimentze-erregimenak nahiz horien justifikazioa ebaluatzea, eta horiei buruzko informazioa lortzea. Informatzeko betebeharrak hori baimentze-erregimenean indarraldia buruzkoa baino ez da, eta ez die eragiten baimena emateko irizpide eta baldintzei.

(59) Arau orokor gisa, baimenak zerbitzu-jarduera atzitzeko edo horretan aritzeko aukera eman behar dio zerbitzu-emaileari, interes orokorreko premiazko arrazoi batek lurralde-murrizketaren bat justifikatu ezean. Adibidez, ingurugiroaren babesak lurralde nazionalako instalazio fisiko bakoitzarako banako baimena eskatzea justifikatzen du. Xedapen honek ez die eragingo estatu kideetan baimenak emateari buruzko eskualdeko nahiz tokiko eskumenei.

(60) Zuzentarau honek, eta zehazkiago, baimentze-erregimenei eta baimen batek hartzen duen lurralde-eremuari buruzko xedapenek ez dute eraginik izan behar estatu kideetako eskualdeko nahiz tokiko eskumenen banaketan, eskualdeko nahiz tokiko gobernu autonomoak eta hizkuntza ofizialen erabilera barne.

(61) Baimen bat emateko baldintzak ez bikoizteari buruzko xedapenak ez die estatu kideei eragotzi behar baimentze-erregimenerako baldintza propioak aplikatzea. Xedapen horrek gauza bakarra exijitu behar du: eskatzaileak baldintzak betetzen dituen ala ez erabakitzerakoan, autoritate eskumendunek hautagaiak jada beste estatu kide batean betetako baldintza baliokideak kontutan hartzea. Xedapen horrek ez du exijitu behar jada beste estatu kide bateko baimentze-erregimenean aurreikusi den baimena emateko baldintzarik.

(62) Lehia askearen bitartez erabiltzaileen eskura jarritako zerbitzu-eskaintzaren kalitatea eta baldintzak hobetze aldera, aukeraketa-prozesua egin beharra dago hautagai posibleen artean, baliabide naturalen edo gaitasun teknikoaren urritasunarengatik, delako jarduerarako eskuragarri dauden baimenen kopurua murrizturik dagoen kasuetan. Prozedura horrek gardentasun eta inpartzialtasun-bermeak izan behar ditu, eta bere bidez emandako baimenak ezin du epe luzeegirik izan, ezin da automatikoki berritu, eta ezin du jarduera utzitako emailearentzat abantailarik ekarri. Batez ere, baimenaren epeak ezin du lehia askea murriztu inbertsioen amortizazioa nahiz inbertitutako kapitalen bidezko ordainak lortzeko behar dena baino gehiago. Xedapen honek ezin die estatu kideei eragotzi baliabide naturalen edo gaitasun teknikoaren urritasunaz bestelako arrazoiak direla medio baimenen kopurua murriztea. Edonola ere, zuzentarau honetan baimentze-erregimenean inguruan jaso diren bestelako xedapenak bete behar dituzte baimen horiek.

(63) Erregimen desberdinik egon ezean, eta epe barruan erantzunik jaso ez bada, baimena emantzat jo behar da. Hala ere, badago jarduera jakin batzuei bestelako erregimenak aplikatzeko aukera, interes orokorreko premiazko arrazoiak hala eskatzen badute; esaterako, hirugarrenen interes legitimoak.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Erregimen desberdin horretan estatu kideen arauak sar daitezke, eta horien arabera, erantzunik jaso ezean, eskaria ukatuzat jo daiteke, nahiz eta ukatze horren aurkako errekurtoa aurkez daitekeen epaitegietan.

(64) Zerbitzuen benetako barne-merkatua sortze aldera, beharrezkoa da ezarpen-askatasunaren nahiz zerbitzuen zirkulazio askearen murrizketak ezabatzea, estatu kide batzuen legedietan jarraitzen dutelako oraindik, eta hurrenez hurren, tratatuko 43. eta 49. artikuluekin bateraezina direlako. Zuzentarau honetan debekatutako murrizketak zerbitzuen barne merkatuari eragiten diote bereziki, eta sistematikoki albait lasterren ezabatu behar dira.

(65) Ezartzeko askatasunak, zehazki, tratu-berdintasunaren printzipioa dakar berekin, eta horrek, estatu kide bateko nazionalitatean oinarritutako diskriminazioa debekatzeko gain, bestelako irizpideetan oinarritutakoa ere debekatu du, izan ere, ondorio berberak ekar baititzake. Horrela bada, estatu kide batean lehen nahiz bigarren mailako jarduera gisa zerbitzu-jardueraren bat atzitzeko edo horretan aritzeko baimena ematerakoan, adibidez, ezin dira ezarpen-lekua, bizilekua, egoitza edo delako jarduera lehen mailako gisa ematea ala ez ematea bezalako irizpideak baliatu. Hala ere, irizpide horiek ez dute jaso behar emaileari, bere langileetakoren bati edo ordezkariaren bati, jarduera bideratzen ari den bitartean, bertan egotea eskatzen dion betekizunik, interes orokorreko premiazko arrazoiek justifikatzen dutenean. Era berean, estatu kideek ezin dituzte murriztu beste estatu kide bateko legedian xedatutakoaren arabera osatu, eta ezarpen-gune nagusia estatu horretan duten sozietateek akzio judizialak bideratzeko duten gaitasun juridikoa nahiz eskubideak. Are gehiago, estatu kideek ezin dute aukera izan herrialde edo tokiko mailan lotura sozioekonomiko bereziren bat duten emailei batere abantaila emateko, ezta emaileak eskubide nahiz ondasunak hartu, ustiatu edo besterentzeko, zein kreditu- eta etxebizitza-era desberdinak atzitzeko duen askatasuna murrizteko ere, gaitasun horiek beren jarduera atzitu edo horretan aritzeko beharrezkoak diren heinean.

(66) Estatu kide batean zerbitzu-jardueraren bat atzitu edo horretan aritzeko baimena ez da proba ekonomiko soil batean oinarrituta eman ala ukatu behar. Baimen bat emateko aurrebaldintza gisa proba ekonomikoak baliatzeko debekua proba horiei baino ez die eragin behar, baina ez interes orokorreko premiazko arrazoiengatik —hala nola, hiri-ingurunearen babesa, gizarte-politika edota osasun publikoa— justifikatutako gainerako baldintzei. Debeku honek ez die eragin behar lehia-zuzenbidea aplikatzeko ardura duten autoritateen eskumenei.

(67) Finantza-bermeei nahiz aseguruari dagokionez, betekizunen debekuak bakarrik egingo dio erreferentzia eskatutako finantza-bermeak edo aseguru estatu kide horretan kokatutako finantza erakunderen batek eman beharri.

(68) Aurretiazko erregistroari dagokionez, ezarri

baino lehenago delako estatu kidean erregistraturik egoteko emaileak duen betebeharrari baino ez dio eragin behar betekizunen debekuak.

(69) Erregelamendu nazionalen modernizazioa barne-merkatuaren eskakizunekin era koherentean koordinatze aldera, egokia da herrialdeen zenbait betekizun ez-diskriminatzaile ebaluatzea baldin eta, horien ezaugarriengatik, ezartzeko askatasuna, eta beraz, jarduera baten atzipena edo horretan aritzea mugatu edota eragotzi baitezakete. Justizia-auzitegiak ezartzeko askatasunari buruz jada ezarritako irizpideen eta aipatutako betekizunen arteko bateragarritasuna baino ez da ebaluatu behar. Erkidegoak eskumenean inguruan duen legediari ez dio eragin behar. Betekizun horiek diskriminatzaile izatekotan, edo interes orokorreko premiazko arrazoiengatik objektiboki justifikatzen ez direnean, ezabatu edo aldatu behar dira. Ebaluazio horren emaitza desberdina izango da jardueraren izaeraren nahiz delako interes publikoaren arabera. Bereziki, betekizun horiek guztiz justifikatuta gera daitezke gizarte-politikako helburuen bidez.

(70) Zuzentarau honi dagokionez, eta Tratatuko 16. artikulua kalterik gabe, delako estatu kideak emailearen eskutan utzitako interes publikodun atazaren bat bideratze aldera ematen diren zerbitzuak baino ezin dira jo interes ekonomiko orokorreko zerbitzutzat. Enkargu hori ekintza bat edo gehiagoren bidez egin behar zaio emaileari, eta delako estatu kideak zehaztu beharko du ekintza horien era nahiz ataza bereziaren izaera zehatza.

(71) Zuzentarau honek xedatutako elkar ebaluatzeko jarduerak ez dio eragin behar estatu kideek beren legedian interes publikoen babes-maila altua ezartzeko duten askatasunari, batez ere gizarte-politikako helburuei dagokionez. Gainera, elkar ebaluatzeko jarduera horretan, beharrezkoa da guztiz kontuan hartzea interes ekonomiko orokorreko zerbitzuen, nahiz egokitu zaizkien betebeharrak bereziki espezifikotasuna. Horrek ezartzeko askatasunaren zenbait murrizketa justifika ditzake, batez ere, xede gisa osasun publikoa babestea edo 15. artikuluko 3. paragrafoaren a), b) eta c) idatz-zatietan ezarritako baldintzak bete, eta gizarte-politikako helburuak dituztenean. Adibidez, gizarte-arloan zerbitzu jakin batzuk emateko forma juridiko jakin bat hartzeko beharri dagokionez, justizia-auzitegiak jada onartu du emaileari irabazi-asmorik ez izateko betebeharra ezartzea justifikatuta egon daitekeela.

(72) Interes ekonomiko orokorreko zerbitzuek gizarte- eta herrialde-kohesioarekin erlaziozko eginkizun garrantzitsuak dituzte. Zuzentarau honetan ezarritako ebaluazio-prozesuaren ondorioz ez da eginkizun horiek betetzea oztopatu behar. Eginkizun horiek betetzeko eskakizunei ere ezin die eragin prozesu horrek, eta aldi berean, ezartzeko askatasunaren justifikatu gabeko murrizketei aurre egin behar zaie.

(73) Aztertu behar diren eskakizunen barruan sartzen da kualifikazio profesionalekin erlaziozko ez dauden arrazoiengatik emaile jakin batzuei

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

jarduera jakin batzuk erreserbatzen dizkieten herrialdeko erregimenak dauden ala ez begiratzea. Betekizun horien artean, emailak forma juridiko zehatza hartu beharra dago; zehazkiago, pertsona juridiko, pertsonen sozietate, irabazi-asmorik gabeko erakunde edo pertsona fisikoena baino ez den sozietate izan beharra dago, eta sozietate baten kapital-jabetzaren inguruko betekizunak ere jasotzen dira, zehazki, jarduera jakin batzuetarako kapital minimoa izan beharra nahiz gizarte-kapitala izateko nahiz sozietate jakin batzuk kudeatzeko kualifikazio profesional espezifikoak izan beharra. Gehieneko edo gutxieneko tarifa finkoen eta ezartzeko askatasunaren arteko bateragarritasunaren ebaluazioa autoritate eskumendunek zerbitzu jakin batzuk emateko ezarritako tarifei baino ez die egiten erreferentzia, eta ez prezioen finkatzeari buruzko arau orokorre, adibidez, ostatuen alokairuei aplikatu dakizkiekeenei.

(74) Elkar ebaluatzeko jarduerak esan nahi du estatu kideek barne-zuzenbidea moldatzeko duten epean beren legedia bahetu beharko dutela, arestian aipatutako betekizunen bat beren legedian jada existitzen den argitzeko. Gehienez jota, trantsizio-epea bukatu baino lehen, estatu kideek bahetze horren emaitzei buruzko txostena prestatu beharko dute. Txosten bakoitza gainerako estatu kideei eta interesa duten guztiei aurkeztuko zaie. Horren ondoren, estatu kideek sei hilabete izango dute txosten horiei buruzko iruzkinak aurkezteko. Gehienez jota zuzentarau hau barne-zuzenbidean txertatu eta urtebetera, Batzordeak sintesi-txosten bat prestatu beharko du, dagokionean, ekimen berrien proposamenekin batera. Beharrezkoa balitz, Batzordeak, estatu kideekin lankidetzan, laguntza eskaini dezake metodo komuna prestatzeko.

(75) Zuzentarau honetan estatu kideek barne-zuzenbidean txertatzeko epe barruan ebaluatu edo ezabatu beharreko betekizun-zerrenda ezartzea ez da eragozpen izango estatu kide baten aurkako helegiteak hasteko tratatuko 43. edo 49. artikulua ez betetzeagatik.

(76) Zuzentarau honek ez dio eragiten merkantzien zirkulazio askeari buruzko tratatuko 28. eta 30. artikuluen aplikazioari. Zerbitzuen emate askeari buruzko xedapenari jarraiki debekatutako murrizketen helburua dira zerbitzu-jardueren atzipenari edo horietan aritzeari aplikagarri zaizkion betekizunak, eta ez ondasunei berez aplikagarri zaizkienak.

(77) Operadore bat beste estatu kide batera mugitzen denean bertan zerbitzu-jarduera batean aritzeko, ezartzeko askatasunaren barruan sartzen diren egoeren eta zerbitzuen zirkulazio askearen barruan sartzen direnen artean desberdindu beharra dago, delako jardueraren denbora-ezaugarrien arabera. Kokatze-askatasunaren eta zerbitzuen zirkulazio askearen arteko desberdintzeari dagokionez, eta Justizia-auzitegiaren jurisprudentziaren arabera, gakoa da operadorea delako zerbitzua ematen den estatuan ezarrita egotea ala ez. Zerbitzuak ematen dituen estatu kidean ezarrita egonez gero, ezartzeko askatasunaren aplikazio-esparruan sartzen da. Aitzitik, eragilea ez badago zerbitzua ematen den

estatu kidean ezarrita, bere jarduerak zerbitzuen zirkulazio askearen babespean egongo dira. Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia errepikatuari jarraiki, jardueren aldi baterako izaera ez da soilik emandako zerbitzuaren iraupenaren arabera zehaztu behar; aitzitik, maiztasuna, periodikotasuna eta jarraitutasuna ere kontutan hartu behar dira. Zerbitzuen emate askearen aldi baterako izaerak ez du kanpoan utzi behar operadoreak zerbitzua ematen duen estatu kidean azpiegitura jartzeko duen aukera (bulegoa, kabinetea edo langelak barne), delako ematea bideratzeko beharrezkoa den heinean.

(78) Zerbitzuen zirkulazio askearen aplikazio eraginkorra ziurtatu, eta emailak nahiz jasotzaileei Erkidego osoan mugak kontutan izan gabe zerbitzuak eman eta jasotzeko aukera bermatze aldera, egokia da argitzea zein neurritaraino diren aplikagarriak zerbitzua ematen den estatu kideko betekizunak. Nahitaezkoa da nabarmentzea zerbitzuen emate askeari buruzko xedapenak ez diola estatu kideari eragozten, 16. artikuluko 1. paragrafoaren a), b) eta c) idatz-zatietan ezarritako printzipioei jarraiki, bere betekizun espezifikoak aplikatzea ordena publikoarekin, segurtasun publikoarekin edo osasun publikoaren nahiz ingurugiroaren babesarekin erlazionatutako arazoengatik.

(79) Justizia-auzitegiak behin baino gehiagotan baieztatu du emailak barne-merkatuko printzipioen abantailaz abusatu ez dezaten, estatu kideek neurriak hartzeko eskubidea gordetzen dutela. Emailak batek abusatu duen ala ez banan-banan argitu beharra dago.

(80) Beharrezkoa da bermatzea zerbitzu-emailak beren zerbitzua emateko behar duten ekipamendua eramateko aukera dutela beste estatu kide batera doazenean zerbitzua ematera. Zehazki, garrantzitsua da ekiditea beharrezko ekipamendua ez izateagatik zerbitzua ematea ezinezko diren kasuak, baita emailak gastu osagarriak ordaindu behar izatea ekipamenduak alokatu, normalean erabiltzen ez dituzten ekipamenduak erabili, edo normalean jarduten diren eraz oso bestela aritu behar izateagatik.

(81) Ekipamenduaren kontzeptuak ez ditu barne hartzen emailak jasotzaileari emandako objektu fisikoak, zerbitzu-jardueraren ondorio gisa objektu fisiko baten parte bihurtzen diren objektuak (adibidez, eraikuntza-materialak edo ordezko piezak), edota zerbitzua eman bitartean kontsumitutako edo bertan utzitako objektuak (adibidez, erregaiak, lehergaiak, su artifizialak, pestizidak, pozoiak edo medikamentuak).

(82) Zuzentarau honetako xedapenek ez diete estatu kideei eragotzi behar enplegu-baldintzei buruzko arauak aplikatzea. Tratatuaren arabera, lege-, erregelamendu- edo administrazio-arauak langileen babesean oinarrituz justifikatu behar dira, ezin dute diskriminatzaileak izan, justizia-auzitegiaren interpretazioaren arabera beharrezkoak eta proportzionalak izan behar dute, eta Erkidegoko Zuzenbidean dagozkien gainerako xedapenak bete behar dituzte.

(83) Beharrezkoa da bermatzea zerbitzuen emate askeari buruzko xedapenak salbuespena aurreikusitu den esparruetan baino ezin direla bete gabe utzi. Salbuespen horiek beharrezkoak dira barne-merkatuaren integrazio-maila baloratzeko, baita emaile batek ezarpen-lekuko estatu kidekoak ez diren legeen menpean egotea aurreikusita duten zerbitzuen inguruko Erkidegoaren tresna batzuek duten integrazio-maila baloratzeko ere.

Gainera, salbuespen gisa, emaile jakin baten aurkako neurriak hartu beharra dago, banako kasu jakin batzuetan eta prozedurazko nahiz oinarritzko baldintza zorrotzei jarraiki. Bestalde, zerbitzuen emate askearen murrizketa bat ez da salbuespen gisa hartuko Erkidegoko ordenamendu juridikoan jasotako zuzenbide-printzipio orokorren parte diren funtsezko eskubideak errespetatu ezean.

(84) Posta-zerbitzuen kasuan, zerbitzuen emate askeari buruzko xedapenaren salbuespenak barne hartu behar ditu, bai zerbitzu unibertsalen emaileari erreserbatutako jarduerak, bai bestelako posta-zerbitzuak ere.

(85) Zerbitzuen emate askeari buruzko xedapenean agindu judizialaren bidezko zor-kitatzei erreferentzia egiten dien salbuespenak eta etorkizuneko harmonizazio-tresna bati buruzko iruzkinak, bakarrik eragingo diete epaimahai baten aurrean zor-kitatzeen inguruko prozedurak hastean datzan jarduera ororen atzipenari eta horietan aritzeari.

(86) Zuzentarau hau ez zaie aplikatuko Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 96/71/EE zuzentaraua, 1996ko abenduaren 16koa, zerbitzuen ematea dela medio jazotzen diren langileen joan-etorriei buruzkoa ⁽¹⁾ baliatuz, beste estatu kide bateko lurraldera joaten diren langileek dituzten lan-eta enplegu-baldintzei. Kasu horietan, 96/71/EE zuzentarauak ezartzen du bertan zerrendatutako arloei dagokienetz emaileek lan- eta enplegu-baldintzak bete behar dituztela zerbitzua ematen den estatu kidean. Hauek dira baldintzok: gehieneko lanaldiak nahiz gutxienezko atsedendialdiak, urtero ordaindutako gutxienezko oporraldia, gutxienezko soldataren zenbatekoak (aparteko orduetako dagozkienak barne), lan-indarra hornitzeko baldintzak (batez ere aldi baterako lana bilatzeko enpresei dagokienez), laneko osasuna, segurtasuna eta higiena, haurdun dauden edo duela gutxi erditu diren emakumeen nahiz ume eta gazteen lan- eta enplegu-baldintzei aplikagarri zaizkien babes-neurriak, emakume eta gizonen arteko tratu-berdintasuna eta diskriminazio ezaren inguruko beste xedapen batzuk. Horrek, xedapen legegileek ezarritako lan-baldintzei eragiteaz gain, hitzarmen kolektiboetan ezarritakoei ere eragiten die, betiere hitzarmenok ofizialki aitortu badira edo, 96/71/EE zuzentarauari jarraiki, orokorki aplikatzekoak badira. Gainera, zuzentarau honek ez die estatu kideei eragotzi behar ordena publikoarekin erlazioatutako arazoengatik 96/71/EE zuzentaruako 3. artikuluko 1. paragrafoan zerrendatutako gaietako buruzkoak ez diren beste gaietako dagokienez lan- eta enplegu-

baldintzak aplikatzea.

(87) Zuzentarau honek ez die lan- eta enplegu-baldintzei eragin behar mugaz gaindiko zerbitzu bat emateko kontratatu den langilea zerbitzua ematen den estatu kidean kontratatzen denean.

Gainera, zuzentarau honek ez dio eragingo zerbitzua ematen den estatu kideek lan-harreman bat dagoen zehazteko duten eskubideari, ezta besteren nahiz beren konturako langileen artean bereizteko duten eskubideari ere, "beren konturako langile faltsuak" barne. Horri dagokionez, Tratatuko 39. artikulua arabera, lan-harreman baten funtsezko ezaugarria da pertsona batek beste baten alde eta azken horren zuzendaritzapean, epe jakin batez prestazio jakin batzuk ematea ordainsari baten truke.

Pertsona batek mendekotasun-erlazio horretatik kanpo egiten duen jarduera oro jarduera autonomo gisa sailkatu beharra dago, Tratatuko 43. eta 49. artikuluen arabera.

(88) Zerbitzuen emate askeari buruzko xedapena ez da aplikatu behar estatu kideek, Erkidegoko zuzenbidearen arabera, jarduera bat lanbide jakin bati erreserbatzen dioten kasuetan, adibidez, aholkularitza juridikoaren prestazioa abokatuei erreserbatzeko beharra.

(89) Justizia-auzitegiaren jurisprudentziaren ondorioz baztertu dira zerbitzuen emate askeari buruzko xedapenetik ibilgailuen matrikulazioarekin erlazioatutako zerbitzuak, ibilgailuak erabiliko diren estatu kidea ez den beste estatu batean finantza-akurak jartzen direnean, justizia-auzitegiak aitortu baitu estatu kide batek bere lurraldean erabiliko diren ibilgailuei era horretako betebeharra inposatu diezaikeela, betiere, proportzionaltasuna gordetzen duten baldintzetan. Bazterketa horrek ez du bere barruan hartzen aldi baterako alokairua.

(90) Emailearen eta bezeroaren arteko kontratu-harremanek nahiz enplegatzaile eta enplegatuaren artekoek ez dute zuzentarau honen menpean egon behar. Emailearen kontratuko edo kontratuz kanpoko betebeharrak aplikagarri zaien legedia nazioarteko Zuzenbide pribatuaren arauetara jarraiki zehaztu beharra dago.

(91) Beharrezkoa da estatu kideei aukera ematea, salbuespen gisa, zerbitzuen emate askeari buruzko xedapenaren salbuespeneko neurriak hartzeko, beste estatu kide batean kokatutako emaile bati dagokionez eta zerbitzuen segurtasuna dela zio. Hala ere, neurri horiek Erkidegoaren harmonizaziorik ez dagoen kasuetan baino ezingo dira aplikatu.

(92) Zerbitzuen zirkulazio askea murrizten duten zuzentarau honen aurkako neurriak emaileen inguruan hartutako neurrietatik eratoritzeaz gain, jasotzaileei, eta batez ere, kontsumitzaileei, zerbitzuak erabiltzea eragozten dieten hainbat oztopotik ere erator daitezke. Zuzentarau honetan zerrendatzen dira, adibide gisa, beste estatu kide batean kokatutako emaile baten zerbitzua erabili nahi duten jasotzaileen inguruko murrizketa-mota batzuk. Beste estatu kide batean kokatutako hornitzaile baten

¹ EO L 18, 1997.1.21ekoa, 1 or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

zerbitzua jasotzeko, zerbitzuen jasotzaileek autoritate eskumendunen baimena lortu behar duteneko kasuak sartzen dira hor, baita autoritate eskumendunen aurrean deklarazioa egin behar direnoko kasuak ere. Estatu kide berean kokatutako emailek emandako zerbitzuen erabilpenari ere aplikatzen zaizkion baimentze-erregimen orokorrak ez dira hor sartzen.

(93) Zerbitzu espezifiko bat erabiltzeko ematen diren laguntzen kontzeptua ez zaie aplikatu behar estatu kideek emandako laguntza-sistemei, batez ere, gizarte edo kultura arloko, eskumenei buruzko Erkidegoaren arauak erregulatuta baitaude, ezta zerbitzu jakin baten erabilpenarekin erlazionatuta ez dauden laguntza ekonomiko orokorrei ere, adibidez, ikasleentzako beka edo maileguei.

(94) Tratatuan zerbitzuen zirkulazio askeari buruz jasotako arauak jarraiki, debekatuta dago jasotzailearen nazionalitatean edo tokiko nahiz herrialdeko egoitzan oinarritutako diskriminazio oro. Diskriminazio horiek hainbat forma har ditzakete, besteak beste, jatorrizko zerbitzuren bat erabili ahal izateko edo tarifetan abantaila jakin batzuk lortu ahal izateko, dokumentuak, kopia konpultsatuak, nazionalitate-egiaztagiria edo dokumentuen itzulpen ofizialak aurkezteko betebeharra inposatzea beste estatu kide bateko biztanleei bakarrik. Hala ere, betekizun diskriminatzaileen debekuak ezin du eragotzi abantaila batzuk erreserbatzea jasotzaile jakin batzuei, batez ere tarifen inguruko abantailak, betiere, abantaila horiek irizpide legitimo eta objektiboetan oinarrituta badaude.

(95) Barne merkatuko diskriminazio ezaren printzipioak inplikatzeko du jasotzaile bati, batez ere, kontsumitzaile bati, ezin zaiola ukatu edota murriztu publikoari eskainitako zerbitzu baten atzipena publikoaren eskura jarritako baldintza orokorretan jasotako irizpideak oinarri hartuta, irizpidea jasotzailearen nazionalitatearekin edo bizilekuarekin erlazionatuta badago. Hori ez da oztopo izango aipatutako baldintza orokor horiek zerbitzuen tarifa, prezio eta baldintza aldakorrak zehatz ditzaten, zuzenean faktore objektiboen bidez justifikatuta; esate baterako, distantziak eragindako kostuen bidez, merkatuko baldintzen desberdintasunen bidez (adibidez,aldi baterakotasunak eragindako eskari altua edo baxua), estatu kideetako oporraldi desberdinen bidez, lehiakideen prezio-politika desberdinen bidez edota ezarpen-lekuko ez den estatu kide baten arauetatik eratorritako baldintza gehigarrien bidez. Ezin da esan diskriminazio ilegala denik kontsumitzaile bati zerbitzuren bat ez ematea lurralde jakin batean beharrezko diren jabetza intelektuala eta industrialeko eskubideen faltagatik.

(96) Emaileak jasotzailearen eskura jarri behar dituen datuak errazago jakinarazteko dituen baliabideen artean, komenigarria da aurreikustea helbide elektronikoa eta interneteko guneara komunikatzeko aukera. Gainerakoan, emaileen zerbitzuak aurkezteko informazio-dokumentuetan datu jakin batzuk jartzeko betebeharrak ez die eragin behar izaera orokorreko merkataritza-komunikazioei, besteak beste publizitateari, baizik eta eskainitako

zerbitzuen deskribapen xehea egiten duten liburuxkei, interneteko guneetan argitaratutako dokumentuak barne.

(97) Beharrezkoa da zuzentarau honetan ezartzea zerbitzuen kalitate altuari buruzko arauen bat, batez ere, informazioaren eta gardentasunaren inguruko betekizunak bermatze aldera.

Arauk zerbitzuak estatu kideen artean eta mugak zeharkatuz ematen direnean aplikatzeaz gain, bertan kokatutako operadore batek estatu kide batean emandako zerbitzuei ere aplikatu behar zaizkie, enpresa txiki eta ertainei beharrezkoak ez diren kargak inposatu gabe. Edonola ere, ezin diete estatu kideei eragotzi zuzentarau honi eta Erkidegoko Zuzenbideko beste xedapenei jarraiki, kalitate-betekizun gehigarriak edo desberdinak aplikatzea.

(98) Jasotzailearen edo hirugarren baten osasunerako edo segurtasunerako arrisku zehatz eta zuzena nahiz finantza-arriskua ekar dezaketen zerbitzuen emailek babestuta egon behar dute, hasiera batean behintzat, erantzukizun profesionaleko aseguru egoki batez edo baliokidea den bestelako berme baten bidez, eta horrek, zehazki, ezarpen-lekuko estatu kideaz gainerako beste estatu kide batean edo batzuetan ematen dituen zerbitzuetarako aseguru egokia izan behar duela inplikatzeko.

(99) Arriskuaren izaeraren eta tamainaren araberakoa izan behar du aseguruak edo bermeak. Hortaz, operadoreek beste estatu kideren batean zerbitzuak ematekotan baino ez dute behar izango mugez gaindiko estaldura.

Estatu kideek ez dituzte aseguruaren estaldurari buruzko arau zehatzagoak ezarri behar. Adibidez, ez dute aseguratutako zenbatekoentzat muga minimorik jarri behar, ezta estalduraren bazterketei aplikagarri zaien mugarik ere. Aseguru-emaile eta -enpresen beharrezko malgutasuna izan behar dute arriskuaren izaera eta tamainaren araberako aseguru-polizak negoziatzeko. Gainera, ez da beharrezkoa legean ezartzea aseguru egokia sinatzeko betebeharra. Nahikoa izan behar du erakunde profesionalek ezarritako arau deontologikoetan aseguru izateko beharra jasotzea. Azkenik, aseguru-enpresen ez dute derrigor aseguru-estaldura emateko betebeharririk izango.

(100) Komenigarria da, erregulatutako lanbideen kasuan, merkataritza-komunikazioak egiteko guztizko debekuak ezabatzea. Ezabaketa horrek ez die merkataritza-komunikazio baten edukari buruzko debekuei eragiten, baizik eta era orokorrean eta delako lanbide bati dagokionez, merkataritza-komunikazioko era bat edo gehiagoren aurkako debekuei, adibidez, hedabide jakin bat edo batzuetako publizitate guztiaren aurkako debekuei. Merkataritza-komunikazioen edukari eta modalitatei dagokienez, egokia da profesionalak akuilatzea Erkidegoko Zuzenbidean xedatutakoa betetzen duten erkidego-mailako jokabide-kodeak presta ditzaten.

(101) Beharrezkoa da bermatzea jasotzaileen, eta batez ere, kontsumitzaileen interesaren alde, emailek diziplina anitzeko zerbitzuak emateko aukera dutela

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

eta horren inguruko murrizketek erregulatutako lanbideen inpartzialtasuna, independentzia eta osotasuna bermatzeko behar-beharrezkoa dena baino gehiago hartzen ez dutela ere bermatu beharra dago. Horrek ez die eragiten jarduera jakinen arloan independentzia bermatzeko xedea duten murrizketa edo debekuei, bereziki hirigintza-garapenaren arloan estatu kide batek emaile bati eginkizun espezifikoa ematen dion kasuetan eta eskumen arauetara ere ez die eragiten.

(102) Gardentasuna hobetu nahiz jasotzaileei eskaini eta emandako zerbitzuen kalitateari dagokionez, irizpide alderagarrietan oinarritutako irizpenak bultzatze aldera, garrantzitsua da derrigorrezko gisa jotzea etiketen esanahiari buruzko informazioa eta zerbitzu horiekin erlazionatutako beste ikurrekin erlazionatutakoa eskuragarri jarri beharra.

Gardentasuneko betebeharrak hori berebiziko garrantzia du turismoan, esaterako, eta bereziki, ostalaritzan, horietan sailkapen-sistemak usu erabiltzen baitira. Era berean, egokia da argitzea zein neurritan izan daitekeen baliagarria normalizazio europarra zerbitzuen bateragarritasuna eta kalitatea hobetzerakoan. Normalizazio-erakunde europarrak prestatzen dituzte arau europarrak: Europako Normalizazio Batzordea (ENB), Normalizazio Elektroteknikorako Europako Batzordea (ENBELEK) eta Telekomunikazioko Arauen Europako Institutua (ETSI, ingelesezko siglekin). Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 98/34/EE Zuzentarauari, 1998ko ekainaren 22koari, informazioaren gizarteko zerbitzuen inguruko erregelak, arau nahiz erregelamendu teknikoaren informazioa emateko prozedura ezartzen duenari jarraiki ⁽¹⁾, Batzordeak arau espezifiko europarrak prestatzeko enkargua eman dezake beharrezkoa denean.

(103) Xedapen judizialak betetzeko sor litezkeen arazoak konpontze aldera, komenigarria da ezartzea estatu kideek aintzat hartu behar dituztela beste estatu kide batean kokatutako bankuek, aseguru-emaileek edota finantza-zerbitzuetan diharduten bestelako emailek jartzen dituzten bermeen baliokideak.

(104) Estatu kideetako agintariak kontsumitzaileak babesteko egindako sarea, 2006/2004 (EE) Erregelamenduaren gaia dena, zuzentarau honetan aurreikusitako lankidetzaren osagarri da. Izan ere, estatu kideen arteko lankidetzari handiagoa behar da mugez gaindiko egoeretan kontsumitzaileak babesteko legedia aplikatu, eta arlo honetako lankidetzari eragozten duten oztopo jakin batzuk ezabatze, batez ere, merkaturatze- eta banaketa-praktika berrien garapenari dagokionez. Zehazki, arlo horretan beharrezkoa da ziurtatzea estatu kideek beren lurraldean diharduten operadoreei exijitzen dietela beste estatu kideetako kontsumitzaileei zuzentzen dieten praktika bidegabeak uzteko.

¹ EO L 204, 1998.7.21eko, 37. or. Azken aldiz 2003ko

Atxikitze Aktaren bidez aldatutako zuzentaraua.

(105) Administrazioen arteko lankidetzak berebiziko garrantzia du zerbitzuen barne-merkatuak ondo funtziona dezan. Estatu kideen arteko lankidetzari faltak emaileei aplikagarri zaizkien arauak biderkatzea dakar, edo mugez gaindiko jardueren kontrolak bikoiztea, eta merkatari bidegabeek egoera bialia dezakete zerbitzuei aplikagarri zaizkien ikuskaritza eta herrialdeko arauak saihesteko. Ondorioz, funtsezkoa da betebeharrak argiak eta lotesleak ezartzea estatu kideen lankidetzari eraginkorra izan dezaten.

(106) Administrazio-lankidetzari buruzko kapituluari dagokionez, "ikuskaritza" terminoak, besteak beste, kontrolak, miaketak, arazoak konpontzea, zehapenak exekutatu eta ezartzea, eta horietatik eratorzen diren jarraipen-jarduerak hartu behar ditu.

(107) Baldintza normaletan, elkarrekiko asistentziak autoritate eskumendunen arteko izan behar du, zuzenean. Zailtasunak egotekotan baino ez zaie eskatu behar estatu kideek izendatutako kontaktuguneei prozesua erraztu dezaten, adibidez, autoritate eskumendun egokia zein den argitzeko beharra dagoenean.

(108) Zuzentarau honek jorrotutako gai guztietan elkarrekiko asistentziaren inguruko betebeharrak jakin batzuk aplikatu beharra dago, emaileak beste estatu kide batean kokatuta dagoen kasuekin erlazionatutakoak barne. Elkarrekiko asistentziarekin erlazionatutako beste betebeharrak batzuk ez dira aplikatu behar zerbitzuen emate askeari buruzko xedapenaren eraginpean eta mugaz gaindi zerbitzuak ematen diren kasuetan baino. Betebeharren azken multzoa aplikatu behar zaie mugez gaindiko zerbitzu-emate guztiei, baita zerbitzuen emate askeari buruzko xedapena aplikatzen ez den arloetan ere. Zerbitzuak urrutitik eman, eta zerbitzuak jasotze aldera, jasotzailea emailearen ezarpen-lekuko estatu kidera bidaiatzen dueneko kasuak sartu behar dira mugez gaindiko zerbitzu-emateen barruan.

(109) Zerbitzu-emaileak, aldi batez, bere ezarpenekoa ez den beste estatu kideren batera joaten bada zerbitzua ematera, egokia da ezarpen-lekuko estatu kidearen eta zerbitzua ematen den estatu kidearen elkarrekiko laguntza aurreikustea, zerbitzua ematen den estatu kideak egiaztapenak, ikuskapenak eta azterketak egiteko aukera izan dezan, ezarpen-lekuko estatuak hala eskatuta, edo ekimen propioz, gertakariak argitzeko baino ez bada.

(110) Estatu kideek ezinezko izan behar dute neurrigabeko egiaztapen, ikuskapen edo ikerketa diskriminatzaileen bidez zuzentarau honetan ezarritako arauak ez betetzea, zerbitzuen emate askeari buruzko xedapena barne.

(111) Zuzentarau honetan emaileen zintzotasunaren inguruko informazioa trukatzeari buruz xedatutakoak ez ditu zigor arloko lankidetzari polizial eta judizialeko beste ekimenak eragotzi behar, bereziki, estatu kideetako polizia-autoritateen arteko informazio-elkartrukeei nahiz zigor-erregistroei dagokienez.

(112) Estatu kideen arteko lankidetzak egoki funtzionatzeko duen informazio-sistema eskatzen du, autoritate eskumendunek erraz jakin dezaten zein diren beste estatu kideetako hizketakideak eta horiekin eraginkorki komunika daitezten.

(113) Beharrezkoa da ezartzea estatu kideek, Batzordearekin lankidetzan, alde interesatuak anima ditzaten erkidego-mailako jokabide-kodeak prestatzera, batez ere, zerbitzuen kalitatea sustatzeko, lanbide bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuz. Jokabide-kodeek Erkidegoko Zuzenbidea errespetatu beharra dute, bereziki, lehiari buruzko Zuzenbidea. Ezin dira estatu kideetan indarrean dauden deontologia eta jokabide profesionalari buruzko xedapen judizial lotesleak aurkakoak izan.

(114) Estatu kideek jokabide-kodeen prestakuntza sustatu behar dute erkidego-mailan, batez ere, profesionalen elkargoen, elkarteen eta erakundeen aldetik. Lanbide bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuz, jokabide-kode horiek lanbide erregulatuei buruzko merkataritza-komunikaziorako arauak jaso behar dituzte, baita deontologia-arauak eta jokabide profesionalakoak ere, zehazki, independentzia, inpartzialtasuna eta lanbide-isilpekotetasuna bermatze aldera. Gainera, jokabide-kode horietan higiezinen agente gisa aritzeko baldintzak ere jaso behar dira. Estatu kideek neurri osagarriak hartu behar dituzte profesionalen elkargoek, elkarteek eta erakundeek jokabide-kode horiek erkidego-mailan aplikatu ditzatela lortzeko.

(115) Erkidegoko jokabide-kodeen xedea da gutxienezko jokabide-arauak ezarri eta estatu kideetako legezko betekizunen osagarri izatea. Jokabide-kode horiek ez dute eragozpen izan behar estatu kideek, Erkidegoko Zuzenbidearen arabera, legezko neurri zorrotzagoak hartzeko, ezta profesionalen elkargoek beren herrialdeko jokabide-kodeak gehiago babesteko.

(116) Zuzentarau honetako helburuak, hots, emaleek estatu kideetan ezartzeko duten askatasunaren murrizketak eta zerbitzuak libreki emateko murrizketak ezabatzea, jarduera handiegia izateagatik ezin direnez estatu kideen aldetik bakarrik lortu, eta ondorioz, erkidego-mailan errazago lor daitezkeenez, Erkidegoak neurriak har ditzake, tratatuko 5. artikuluan ezarritako subsidiarotasun-printzipioari jarraiki. Artikulu horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioaren arabera, zuzentarau hau ez doa aipatutako helburuak betetzeko beharrezkoa dena baino urrunago.

(117) Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE erabakiaren arabera, Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenak erabiltzeko prozedurak ezartzen dituenaren arabera alegia, egokia da zuzentarau hau exekutatzeko beharrezko diren neurriak onartzea⁽¹⁾.

¹ EO L 184, 1999.7.17koa, 23. or. 2006/512/EE

Erabakiaren bidez (EO L 200, 2006.7.22koa, 11. or.)

(118) “Legeak hobeto egitea” deritzon instituzioen arteko hitzarmeneko 34. puntuaren arabera⁽²⁾, estatu kideak beren koadro propioak aurkeztera bultzatu behar dira, beren eta Erkidegoaren interesen alde, ahal den neurrian, zuzentarau honen eta barne-zuzenbidean txertatzeko neurrien arteko bateratze-maila argitu dezaten.

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Xedea

1. Zuzentarau honetan ezartzen dira zerbitzu-emaleen ezartzeko askatasunaren erabilpena erraztu, eta zerbitzuen zirkulazio askea mantentzeko behar diren xedapen orokorrak, aldi berean, zerbitzuen kalitatea mantenduz.

2. Zuzentarau honek ez ditu jorratzen erakunde publiko nahiz pribatuetatik erreserbatuta dauden interes ekonomiko orokorreko zerbitzuen liberalizazioa, ezta zerbitzuak ematen dituzten erakunde publikoen pribatizazioa ere.

3. Zuzentarau honetan ez dira jorratzen zerbitzu-emaleen monopolioak, ezta lehiari buruzko Erkidegoaren arauak inarri hartuta estatu kideek emandako laguntzak ere.

Zuzentarau hau gorabehera, estatu kideek askatasuna izango dute interes ekonomiko orokorreko zerbitzuetatik zeintzuk jotzen dituzten zehazteko, baita zerbitzu horiek laguntza publikoen arauen arabera antolatzeko era nahiz aplikatu beharreko betebeharrak espezifikoak definitzeko ere, betiere, Erkidegoaren legediaren arabera.

4. Zuzentarau honek ez die eragiten Erkidegoaren Zuzenbideari jarraiki eta erkidego- nahiz herrialde-mailan, kultura- eta hizkuntza-aniztasuna sustatzeko eta hedabideen pluralismoa defendatzeko hartu diren neurriak.

5. Zuzentarau honek ez dio eragiten estatu kideen zigor-zuzenbideari buruzko araudiari. Hala ere, estatu kideek ezin izango dute zerbitzuak emateko askatasuna murriztu zuzentarau honetan ezarritako arauak saihestuz eta zerbitzu-jarduera baten atzipena nahiz horretan aritzea arautzen duen edo horiei eragiten dioten xedapenak aplikatuz.

6. Zuzentarau honek ez dio laneko Zuzenbideari

aldatutako erabakia.

² EO C 321, 2003.12.31koa, 1 or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

eragiten, hau da, ez dio eragiten estatu kideek beren herrialdeko legediari jarraiki eta Erkidegoko Zuzenbidea errespetatuz aplikatzen dituzten enplegu-edo lan-baldintzei buruzko lege- edo kontratuxedapenei, laneko osasuna zein segurtasuna eta enplegatzaile eta enplegatuen arteko harremanak barne. Estatu kideen gizarte segurantzaren inguruko herrialdeko legediari ere ez dio eragiten.

7. Zuzentarau honek ez dio funtsezko eskubideen erabilpenari eragiten estatu kideetan nahiz Erkidegoko Zuzenbidean aitortzen diren eran. Erkidegoko Zuzenbidea errespetatzen duten herrialdeko praktikei eta legediari jarraiki hitzarmen kolektiboak negoziatu, sinatu eta aplikatzeko eskubideari ere ez dio eragiten, ezta ekintza sindikalera jotzeko eskubideari ere.

2. artikulua

Aplikazio-eremua

1. Zuzentarau hau estatu kideren batean kokatutako emaileek emandako zerbitzuei aplikatuko zaie.

2. Zuzentarau honen aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira jarduera hauek:

- a) interes orokorreko zerbitzu ez-ekonomikoak;
- b) finantza zerbitzuak, hala nola, banku-zerbitzuak, kreditu-zerbitzuak, aseguruak nahiz berraseguruak, enplegu-pentsioak edo banakakoak, balore-zerbitzuak, inbertsio-funtsak, ordainketa-zerbitzuak eta inbertsioen inguruko aholkularitza, 2006/48/EE zuzentarauko I eranskinean zerrendatutako zerbitzuak barne;
- c) komunikazio elektronikoaren zerbitzu eta sareak, baita horiei lotutako baliabide eta zerbitzuak ere, 2002/19/EE, 2002/20/EE, 2002/21/EE, 2002/22/EE eta 2002/58/EE zuzentzarauak araututako gaiei dagokienez.
- d) tratatuko V. tituluaren aplikazio-eremuan sartzen diren garraioaren arloko zerbitzuak, portu-zerbitzuak barne;
- e) aldi baterako lana bilatzeko enpresen zerbitzuak;
- f) osasun-establezimenduetan edo horietatik kanpo emandako osasun-zerbitzuak, berdin diola herrialde-mailan nolako antolakuntza-eta finantzazio-erak dituzten eta haien izaera publikoa edo pribatua den;
- g) ikus-entzunezko zerbitzuak, zerbitzu zinematografikoak barne, horien produkzio-, banaketa- eta transmisio-mota dena dela, eta irradi-difusioa;
- h) ausazko jokoetan diruzko balioa duten apustuak eskatzen dituzten joko-jarduerak,

loteriak, kasinoetako jokoak eta apustuak barne;

- i) autoritate publikoaren erabilpenari lotutako jarduerak, tratatuko 45. artikuluari jarraiki;
- j) etxebizitza sozialarekin, haurren arretarekin eta era iraunkorrean nahiz aldi baterako laguntza behar duten familia eta pertsonentzako laguntzarekin lotutako gizarte-zerbitzuak, Estatuak berak, Estatuak enkargatutako emaileek edo Estatuak ongintza-erakunde gisa aintzat hartutako elkarteek emanak.
- k) segurtasun-zerbitzu pribatuak;
- l) Administrazioaren egintza ofizial baten bidez izendatutako notarioek nahiz eragile judizialek emandako zerbitzuak.

3. Zuzentarau hau ez zaio fiskalitateari aplikatuko.

3. artikulua

Erkidegoko Zuzenbideko gainerako xedapenekiko erlazioak

1. Zerbitzu bateko jarduera atzitzeari edo zerbitzu hori sektore jakinetan edo lanbide jakinekin erlazionatuta emateari buruzko Erkidegoaren beste ekintza bateko xedapenen baten eta zuzentarau honetako xedapen baten arteko gatazkarik sortzekotan, lehen arauak gailenduko dira, eta sektore edo lanbide jakin horiei aplikatuko zaizkie. Egintza horien artean hauek aurki daitezke:

- a) 96/71/EE Zuzentaraua;
- b) 1408/71 Erregelamendua (EEE);
- c) Kontseiluaren 89/552/EEE Zuzentaraua, 1989ko urriaren 3koa, telebista eta irradi-difusioa jarduerari buruzko estatu kideen lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapen jakin batzuen koordinazioari buruzkoa ⁽¹⁾;
- d) 2005/36/EE Zuzentaraua;

2. Zuzentarau honek ez die eragingo nazioarteko Zuzenbide pribatuko arauari, zehazki, kontratuko eta kontratuz kanpoko betebeharrari dagozkien arauari, barne hartuta kontsumitzaileei bermatzen dietenak beren estatu kidean indarrean dagoen legedian kontsumitzailea babeste aldera ezarri diren neurriek ematen duten babesaz gozatuko dutela.

¹ EO L 298, 1989.10.17koa, 23. or. Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 97/36/EE Zuzentzarauaren bidez (EO L 202, 1997.7.30ekoa, 60. or.) aldatutako zuzentaraua.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Estatu kideek zuzentarau honetan xedatutakoa aplikatuko dute ezartzeko askatasuna eta zerbitzuen zirkulazio askea arautzen duten arauei jarraiki.

4. artikulua

Definizioak

Zuzentarau honetan, jarraian zerrendatzen diren terminoek esanahi hau izango dute:

- 1) "zerbitzu" gisa ulertuko da norberaren kontura, eta normalean, dirusari baten truke egindako edozein jarduera ekonomiko, Tratutako 50. artikuluan jaso bezala;
- 2) "emailea"; zerbitzuren bat eskaini edo eman, eta estatu kideren bateko nazionalitatea duen edozein pertsona fisiko nahiz zerbitzuren bat eman edo eskaintzen duen eta tratutako 48. artikuluan aurreikusita dagoen edozein pertsona juridiko, estatu kideren batean kokatua dagoen;
- 3) "jasotzailea"; estatu kide bateko nazionalitatea duen edo ekintza komunitarioen bidez pertsona fiskoei ematen zaizkien eskubideen onuradun den edozein pertsona fisiko, nahiz xede profesionalekin edo bestelako xedeekin, zerbitzuren bat erabiltzen duen edo erabili nahi duen estatu kideren batean kokatutako pertsona juridiko oro, tratutako 48. artikuluan aurreikusitakoaren artean.
- 4) "Ezarpen-lekuko estatu kidea", zerbitzu-emailea ezarri den lurraldeari dagokion estatu kidea;
- 5) "ezarpena"; tratutako 43. artikuluan jasotako ekonomia-jardueraren batean efektiboki aritzea, epe zehaztugabea eta zerbitzuak emateko balio duen azpiegitura baten bidez;
- 6) "baimentze-erregimena"; zerbitzu-emaileak bete behar duen prozedura, zerbitzu-emailea edo haren jasotzailea autoritate eskumendunaren aurrean izapide bat egitera behartzen duena, erabaki inplizitua edo dokumentu ofizialen bat lortzeko, eta, ondorioz, zerbitzuren bat jasotzeko edo zerbitzu-jarduerak egiteko baimena eskuratzeko;
- 7) "baldintza"; estatu kideen lege-, arau- edo administrazio-xedapenetan aurreikusitako edota jurisprudentziaren, administrazio-praktiken, profesionalen elkargoen arauen edo profesionalen elkarte edo erakundeetako arau kolektiboen ondorioz, nork bere autonomia juridikoa erabiliz, ezarritako edozein betebeharrak, debeku, betekizun edo muga; gizarte-eragileek negoziatutako hitzarmen kolektiboetatik eratorritako arauak ez dira betekizun gisa hartuko zuzentarau honi dagokionez;
- 8) "interes orokorreko premiazko arrazoia"; justizia-auzitegiaren jurisprudentzian hala aintzat hartutako arrazoia, hauek barne: ordena publikoa,

segurtasun publikoa, babes zibila, osasun publikoa, gizarte segurantzako erregimenaren finantza-oreka babestea, kontsumitzaileen, zerbitzu-jasotzaileen eta langileen babesa, merkataritza-transakzioei dagokienez fede onak jartzten dituen exijentziak, iruzurraren aurkako borroka, ingurugiroaren eta hiri-ingurunearen babesa, animalien osasuna, jabetza intelektual eta industrialak, herrialdeko ondare artistikoa eta historikoaren kontserbazioa eta gizarte- nahiz kultura-politikako helburuak;

- 9) "autoritate eskumenduna", estatu kide batean zerbitzu-jardueren kontrola edota erregulazioa bideratzen duen edozein erakunde edo organismo, eta zehazkiago, beren autonomia juridikoa baliatuz, zerbitzu-jardueren atzipena edo horietan aritzea erregulatzen duten administrazio-autoritateak, auzitegiak beren jardueran dihardutenean barne, profesionalen elkargoak eta profesionalen elkarte edo erakundeak.
- 10) "Jomuga den estatu kidea"; beste estatu kide batean kokatutako emaileak zerbitzua emateko erabiltzen duen estatu kidea;
- 11) "erregulatutako lanbidea"; 2005/36/EE Zuzentarauko 3. artikularen 1. paragrafoa a) idatz-zatian definitzen den jarduera edo jarduera-multzoa;
- 12) "merkataritza-komunikazioa"; merkataritza-, industria-, edo artisautza-jardueraren batean edo lanbide erregulaturen batean diharduen enpresa, erakunde edo pertsona baten irudia, ondasunak, eta zerbitzuak promozionatzeko xedea duen edozein komunikazio-mota. Hauek ez dira merkataritza-komunikaziotzat joko;
 - a) enpresa, erakunde edo pertsona horren zerbitzuak zuzenean atzitzeko aukera ematen duten datuak, eta zehazki, domeinuaren izena edo posta elektronikoaren helbidea,
 - b) enpresa, erakunde edo pertsona horren ondasunei, zerbitzuei edo irudiari buruz era independentean egindako komunikazioak, batez ere ordain ekonomikorik gabe egiten direnean..

II. KAPITULUA

ADMINISTRAZIO-SINPLIFIKAZIOA

5. artikulua

Prozedurak sinplifikatzea

1. Estatu kideek zerbitzu jarduera bat atzitzeko edo horretan aritzeko aplikagarri diren izapide eta prozedurak egiaztatuko ditu. Paragrafo honi jarraiki aztertutako prozedura eta formaltasunak nahikoa simple ez direnean, estatu kideek sinplifikatuko dituzte.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. 40. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako prozedurari jarraiki, Batzordeak ziurtagiriei, akreditazioei edota emaile bat kokatze aldera beharrezko diren bestelako dokumentuei buruzko formulario harmonizatuak ezarri ahal izango ditu.

3. Estatu kideek emaile edo jasotzaile bati eskatzen diotenean egiaztagiriren bat, ziurtagiriren bat edo betekizun bat betetzen dela frogatzen duen beste edozein dokumentu aurkezteko, funtzio baliokidea duen, edo delako betekizuna betetzen dela frogatzen duen edozein agiri onartu beharko dute, beste estatu kide batek emana bada. Beste estatu kide bateko dokumentuen kasuan, ez da betebeharrizkoak, kopia konpultsatuak edo itzulpen konpultsatuak aurkeztea, Erkidegoaren beste tresna batzuetan aurreikusitako kasuetan izan ezik edo interes orokorreko premiazko arrazoiren batek justifikatutako salbuespenetan izan ezik, ordena publikoa eta segurtasuna barne.

Lehen paragrafoak ez dio eragingo estatu kideek beren hizkuntza ofizialetara zinpekoak ez diren itzulpenak exijitzeko duten eskubideari.

4. Artikulu honetako 3. paragrafoa ez zaie aplikatuko hauetan jasotako dokumentuei: 2005/36/EE Zuzentarauko 7. artikuluko 2. paragrafoan; Hornikuntza-, obra- eta zerbitzu-kontratu publikoen esleipen-prozedurak koordinatzeari buruzko Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko matxoaren 31ko 2004/18/EE Zuzentarauko ⁽¹⁾ 45. artikulua 3. paragrafoan nahiz 46., 49. eta 50. artikuluetan; Titulua jaso den estatu kidea ez den beste estatu kide batean era iraunkorrean abokatu izatea errazteko xedea duen Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1998ko otsailaren 16ko 98/5/EE Zuzentarauko ⁽²⁾ 3. artikuluko 2. paragrafoan; Kontseiluaren 1968ko martxoaren 9ko 68/151/EEE Lehen Zuzentaruaren, Bazkide eta hirugarrenen interesak babeste aldera, eta berme guztiak baliokide bihurtzeko, tratatuko 58. artikuluko bigarren paragrafoan definitzen diren sozietateetako kideei estatu kideetan exijitzen zaizkien bermeak koordinatzera jotzen duenean ⁽³⁾, eta Kontseiluaren 1989ko abenduaren 21eko 89/666/EEE Hamaikagarren Zuzentaruaren, Estatu kide batean beste estatu kide bateko zuzenbidearen menpe dauden sozietateek ezarritako sukurtsalen publikitateari buruzkoan ⁴.

6. artikulua

Leihatila bakarra

¹ EO L 134, 2004.4.30ekoa, 114. or. Azken aldiz Batzordearen 2083/2005 Erregelamenduaren bidez (EO L 333, 2005.12.20koa, 28. or.) aldatutako zuzentaruak.

² EO L 77, 1998.3.14koa, 36. or. 2003ko Atxikitze Aktaren bidez aldatutako zuzentaruak.

³ EO L 65, 1968.3.14koa, 8. or. Azken aldiz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/58/EE Zuzentaruaren bidez (EO L 221, 2003.9.4koa, 13. or.) aldatutako zuzentaruak.

⁴ EO L 395, 1989.12.30ekoa, 36. or.

1. Estatu kideek bermatuko dute emaileek leihatila bakarretan izapide eta prozedura hauek bideratu ditzaketela:

- a) beren zerbitzu-jarduerak atzitzeko beharrezko diren izapide eta prozedura guztiak, batez ere, autoritate eskumendunen baimena lortzeko beharrezkoak diren aitorten, jakinarazpen eta eskariak, barne hartuta erregistroetan inskribatzeko eskariak, zerrenda ofizialak, datu-baseak eta profesionalen elkargo eta elkarteak;
- b) beren zerbitzu-jardueretan aritzeko behar diren baimenen eskariak.

2. Leihatila bakarra sortzeko ez du gatazkarik sortuko herrialdeko sistema bakoitzaren barruko funtzio eta eskumenak banatzerakoan.

7. artikulua

Informazio-eskubidea

1. Estatu kideek beharrezko diren jarduerak bideratuko dituzte emaile nahiz jasotzaileek leihatila bakarren bidez informazio hau erraz eskura dezaten:

- a) beren lurraldean kokatutako emaileei aplikagarri zaizkien betekizunak, batez ere, zerbitzu-jarduerak atzitu eta horietan aritzeko behar diren prozedura eta izapideei buruzkoak;
- b) autoritate eskumendunekin zuzenean harremanetan jartzeko datuak, zerbitzu-jardueren jardunarekin erlazionatutako gaitako eskumena duten autoritateak barne;
- c) emaile eta zerbitzuei buruzko datu-base publikoetara nahiz erregistroetara sartzeko bideak eta baldintzak;
- d) autoritate eskumendunen eta emaile edo jasotzailearen artean, emailearen eta jasotzailearen artean nahiz emaileen artean auziren bat dagoenean helegitea aurkezteko egon ohi diren bideak;
- e) autoritate eskumendunetz gain, emaile edo jasotzaileei laguntza praktikoa eman diezaieketen erakunde edo elkarten datuak.

2. Estatu kideek beharrezko den guztia egingo dute emaile eta jasotzaileek, hala eskatutakoan, autoritate eskumendunen laguntza izan dezaten. Laguntza hori normalean 1. paragrafoko a) idatzatian jasotako betekizunak interpretatu eta aplikatzeko erari buruzko informazioa ematean datza. Egokia denean, aholkularitza horrek eskuliburu simple eta xehea ere izango du. Informazioa era argi eta ulergarrian emango da.

3. Estatu kideek ziurtatuko dute 1. eta 2. paragrafoetan aurreikusitako informazioa eta laguntza

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

era argi eta ezbairik gabean aurkezten dela, bide elektronikoak baliatuz urrutitik erraz atzi daitekeela, eta eguneratuta dagoela.

4. Estatu kideek ziurtatuko dute leihatila bakarrek eta autoritate eskumendunek ahalik eta azkarren erantzuten dietela aurkezten diren eta 1. nahiz 2. paragrafoan jasota dauden informazio- edo laguntza-eskaera guztiei, eta eskatzaileari ahalik eta azkarren jakinarazten diotela eskaria oinarririk gabekoa den ala ez.

5. Estatu kideek eta Batzordeak beharrezko neurri osagarriak hartuko dituzte leihatila bakarretan artikulua honetan jasotako informazioa Erkidegoko beste hizkuntzetan ere badagoela sustatzeko. Horrek ez dio eragiten estatu kideek hizkuntzen erabileraren inguruan duten legediari.

6. Autoritateek emaile nahiz jasotzaileei asistentzia emateko duten betebeharrak betekizunak interpretatu eta aplikatzeko ohiko erari buruzko informazio orokorra baino ez du hartzen eta, beraz, ez die exijitzen kasu zehatzetan aholkularitza juridikoa ematea.

8. artikulua

Elektronika bidezko prozedurak

1. Estatu kideek beharrezkoa den guztia egingo dute zerbitzu-jarduera baten atzipenari eta horretan aritzeari buruzko prozedura eta izapideak urrutitik, erraz eta bide elektronikoak baliatuz egiteko aukera egon dadin, dagokion leihatila bakararen bidez eta autoritate eskumendunen aurrean.

2. Lehenengo paragrafoa ez zaie aplikatuko zerbitzua emateko erabiltzen den lekuaren edo emaileak erabilitako ekipamenduaren ikuskapenei, ezta emailearen edo langile arduradunen gaitasuna edota osotasuna ebaluatzeko azterketa fisikoari ere.

3. 40. artikuluko 2. paragrafoan jasotako prozedurari jarraiki, Batzordeak garapen-neurriak hartuko ditu artikulua honen 1. paragrafoa aplikatzeko, informazio-sistemak elkarren lekutik opera daitezkeela eta estatu kideen artean prozedura elektronikoak erabiltzen direla bermatzeko helburuarekin, betiere, Erkidego mailan garatutako arau komunak kontuan hartuta.

III. KAPITULUA

EMAILEEN EZARTZEKO ASKATASUNA

1. ATALA

Baimenak

9. artikulua

Baimentze-erregimenak

1. Estatu kideek zerbitzu-jardueraren bati ekiteko edo hartan jarduteko baimentze-erregimenak ezar

ditzakete, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) baimentze-erregimena ezin da zerbitzu-emailearekiko diskriminatzailea izan;
- b) interes orokorreko premiazko arrazoi batek justifikatu behar du baimentze-erregimenaren beharra;
- c) bilatzen den helburua ezin da lortu hain murriztailea ez den neurri baten bidez, zehazki, kontrola gerora edo *a posteriori* egitea beranduegi litzatekeelako.

2. 39. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako txostenean, estatu kideek beren baimentze-erregimenak nahiz oinarri dituzten arrazoiak zerrendatu, eta artikulua honen 1. paragrafoarekin bateragarri direla frogatu beharko dute.

3. Atal hau ez zaie aplikatuko Erkidegoaren tresnen bidez zuzenean edo zeharka araututako baimentze-erregimenei.

10. artikulua

Baimena emateko baldintzak

1. Autoritate eskumendunen hautemate-gaitasuna era arbitrarioan erabili ez dadin, baimentze-erregimenei autoritate eskumendunen hautemate-gaitasuna mugatzen duten irizpideak izan beharko dituzte oinarri.

2. Ezaugarri hauek izan beharko dituzte 1. paragrafoan aurreikusitako irizpideek:

- a) diskriminatzaileak ez izatea;
- b) interes orokorreko premiazko arrazoi baten bidez justifikatuta egotea;
- c) interes orokorreko interes horrekiko proportzionaltasuna gordetzea;
- d) argiak eta ezbairikgabeak izatea;
- e) objektiboak izatea;
- f) aurretiaz publikoari haien berri ematea;
- g) gardenak eta eskuragarriak izatea.

3. Ezarpen berria egiteko baimena emateko baldintzak ezin izango zaizkie gainjarri emaileak beste estatu kide batean edo estatu kide berean jada bete behar dituen eta, haien helburuengatik, baliokideak edo alderagarriak diren betekizun eta kontrolei. 28. artikulua 2. paragrafoan jasotako harremanetarako guneek eta emaileak autoritate eskumendunarekin batera egin behar izango dute lan, betekizun horiei buruzko beharrezko informazioa emanez.

4. Baimenak aukera eman behar dio emaileari

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

herrialdeko lurralde osoan zerbitzu-jarduera atzitzeko edo horretan aritzeko, baita agentzien, sukurtsalen, filialen edo bulegoen bidez aritzeko ere, interes orokorreko premiazko arrazoiren batek ez badu justifikatzen ezarpen bakoitzerako banako baimena edo lurraldeko eremu jakin batera mugatzen den baimena ematea.

5. Azterketa egoki bat eginez, betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren emango da baimena.

6. Baimen bat emateko kasuetan salbu, autoritate eskumendunen erabaki orok, baimena ukatu edo kentzekoak barne, oinarrituta egon beharko du, eta helegite judizialen bidez edo bestelako helegite-instantzien bidez aurka egin ahal izango zaio.

7. Artikulu honek ez du zalantzan jartzen baimenak emateko gaitasuna duten estatu kideetako autoritate eskumendunen tokiko edo eskualdeko eskumenen banaketa.

11. artikulua

Baimenen indarraldia

1. Emaileari emandako baimenaren iraupena kasu hauetan baino ezingo da mugatu:

- a) baimena automatikoki berritzen denean edo baimenari eusteko, betekizunak era jarraian bete behar direnean;
- b) eskura daitezkeen baimenen kopurua interes orokorreko premiazko arrazoi batengatik mugatua dagoenean;
- c) interes orokorreko premiazko arrazoi batek iraupen mugatua justifikatzen duenean.

2. Lehenengo paragrafoa ez zaio aplikatuko zerbitzu-emaileak baimena lortu ondoren jarduerari ekiteko duen gehienezko epeari.

3. Estatu kideek 6. artikuluan aurreikusitako leihatila bakarrean aldatuta hauek jakinaraztera behartuko dituzte emaileak:

- a) baimentze-erregimenaren aplikazio-eremuan sartzen diren jarduerak dituzten filialen sorrera;
- b) ondorio gisa baimena emateko baldintzak ez betetzea dakarten egoera-aldaketak.

4. Artikulu honek ez dio eragingo estatu kideek baimenak kentzeko duten aukerari, bereziki, baimena emateko baldintzak betetzeari uzten zaionean.

12. artikulua

Hainbat hautagairen artean aukeratzea

1. Jarduera jakin baterako baimenen kopurua

baliabide naturalen nahiz gaitasun tekniko erabilgarrien eskasiaren ondorioz mugatuta dagoen kasuetan, estatu kideek, inpartzialtasuneko eta gardentasuneko berme guztiak zainduz, hautagaien artean aukeratzeko prozedura aplikatuko dute, eta bereziki zainduko dute prozeduraren hasierari, garapenari nahiz bukaerari buruzko publikitate egokia egiten dela.

2. Lehenengo paragrafoan aurreikusitako kasuetan, baimenak indarraldi egokia eta mugatua izango du, ez du berritze automatikorako prozedurarik izango eta ez dio jarduera uzten duen emaileari nahiz berari bereziki lotuta dauden pertsonen beste inolako abantailarik ekarriko.

3. Lehenengo paragrafoan eta 9. nahiz 10. artikuluetan xedatutakoaren kalterik gabe, estatu kideek kontutan hartu ahal izango dituzte haien aukeratze-prozedura aplikatzerakoan, osasun publikoaren inguruko irizpenak, baita gizarte-politikako helburuen ingurukoak, osasuneko helburuen ingurukoak, besteren nahiz norberaren konturako langileen segurtasunaren ingurukoak, ingurugiroaren babesaren ingurukoak, kultura-ondarearen kontserbazioaren ingurukoak, eta interes orokorreko premiazko beste edozein arrazoiren ingurukoak ere, Erkidegoko Zuzenbidea errespetatuz.

13. artikulua

Baimentze-prozedurak

1. Baimentze-prozedurek eta -izapideek argiak izan behar dute, aurretiaz plazaratu behar dira eta eskatzaileei beren eskaria inpartzialtasunez eta objektibotasunez tratatuko dela bermatzeko egokiak izan behar dute.

2. Baimentze-prozedura eta -izapideek ezin izango dute disuasio-izaerarik izan, eta ez dute zerbitzuaren ematea beharrik gabe atzeratu edo zaildu behar. Zerbitzuok erraz atzitzeko aukera egon behar du eta eskatzaileek sortutako gastuek baimentze-prozeduren kostuekiko proportzionalak izan behar dute, sekula ez kostu horiek baino handiagoak.

3. Baimentze-prozedurak eta -izapideak egokiak izan beharko dira interesatuei bermatzeko beren eskaera ahalik eta lasterren izapidetzen dela eta, edonola ere, aurretiaz ezarri eta jakinarazitako zentzuzko erantzun-epe baten barruan. Epea ez da hasiko dokumentazio guztia aurkeztu arte. Gaiaren konplexutasunak hala justifikatzen duenean, agintari eskudunak epea luzatzeko aukera izango du, behin bakarrik eta denbora mugatu batez. Luzapena eta horren iraupena behar bezala oinarritu beharko dira eta eskatzaileari jakinaraziko zaizkio jatorrizko epea bukatu baino lehen.

4. Ezarritako epea edo 3. paragrafoaren arabera luzapena agortzean erantzunik jaso ezean, baimena emantzat joko da.

Hala ere, erregimen desberdina aurreikusteko aukera egongo da interes orokorreko premiazko arrazoi batek hala justifikatzen duenean, hirugarrenen interes

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

legitimoak barne.

5. Baimen-eskari ororen bidaltzaileak ahalik eta lasterren jaso beharko du eskaria jaso izanaren egiaztatzea, eta horretan, alderdi hauek zehaztuko dira:

- a) 3. paragrafoan aurreikusitako epea;
- b) errekurtsio-bideak;
- c) egokia denean, ezarritako epea agortutakoan erantzunik jaso ez bada, baimena emantzat joko dela jakinarazten duen oharra.

6. Eskaria ez badago osorik, ahalik eta lasterren jakinaraziko zaie interesatuei dokumentazio osagarria aurkeztu behar dutela, eta 3. paragrafoan aurreikusitako epean izan ditzakeen eraginen berri ere emango zaie.

7. Eskari bat beharrezko prozedurak edo izapideak ez betetzeagatik gaitzesten denean, interesatuei ahalik eta lasterren jakinarazi beharko zaie.

2. ATALA

Debekatutako eta ebaluaziopeko betekizunak

14. artikulua

Debekatutako betekizunak

Estatu kideek ezin izango dituzte betekizun hauek ezarri beren lurraldeetan zerbitzu-jarduera bat atzitu edo horretan aritzeko:

- 1) zuzenean edo zeharka nazionalitatean oinarritutako betekizunak, edo sozietateei dagokienez, sozietatearen helbidean oinarritutakoak, bereziki:
 - a) emailearentzako, bere langileriarentzako, gizarte-kapitala duten pertsonentzako edo kudeaketa- eta ikuskaritza-organoetako kide diren pertsonentzako nazionalitate-betekizunak,
 - b) emailearentzako, bere langileriarentzako, gizarte-kapitala duten pertsonentzako edo kudeaketa- eta ikuskaritza-organoetako kide diren pertsonentzako, estatu kidearen lurraldean bizitzeko betekizuna,
- 2) estatu kide batean baino gehiagotan ezartzeko debekua edota estatu kide bateko baino gehiagoko profesionalen elkarte, elkargo edo erregistroetan inskribatuta egoteko debekua;
- 3) emaileak establezimendu nagusi baten eta bigarren mailako establezimendu baten artean aukeratzeko duen askatasunaren murrizketak, eta bereziki, emaileak establezimendu nagusia estatu kidearen lurraldean izateko betekizuna edota establezimendua agentzia, sukurtsal edo filial gisa aukeratzeko askatasunaren murrizketak;

4) zerbitzu-emaileak ezarpen-lekuko estatu kidearekiko dituen elkarrekikotasun-baldintzak, energia-gaietarako Erkidegoaren tresnetan aurreikusitakoak salbu;

5) merkatuan behar ekonomikoa edo eskaria dagoela frogatzean, jardueraren balizko nahiz benetako ondorioen ebaluazioa eskatzean edo autoritate eskumendunaren ekonomia-programazioko helburuak bete daitezzen exijitzean datzan froga ekonomikoa kasuz kasu aplikatzea baimena emateko. Debeku horrek ez die eragingo izaera ekonomikoa ez duten planifikazio-betekizunei, ez badituzte interes orokorreko premiazko arrazoiak argudiatzen;

6) baimenak ematerakoan edo autoritate eskumendunen bestelako erabakiak hartzerakoan, lehiakideen esku-hartze zuzena edo zeharkakoa, aholkularitza-organoetan barne, profesionalen elkargoak eta autoritate eskumendun gisa aritzen diren elkarte eta erakundeak salbu; debeku honek ez die eragingo banakako baimen-eskarietako bestelako gaiei buruz merkataritza-ganbarak edo gizarte-solaskideak bezalako erakundeei egiten zaizkien kontsultei, ezta publikoaren kontsulta orokorrei ere;

7) finantza-abala osatzeko, horretan parte hartzeko edo estatu kidean kokatutako emaile edo erakunderen batekin aseguru sinatzeko betebeharra. Horrek ez dio eragingo estatu kideek aseguruak edo finantza-bermeak exijitzeko duten aukerari, ezta konpentsazio-funts kolektiboetan parte hartzeari buruzko betekizunei, adibidez, profesionalen elkargo edo erakundeetako kideei;

8) aurretiaz eta epe jakin batez, estatu kidean existitzen den erregistroren batean inskribaturik egon beharra edo lurralde horretan delako jardueran epe jakin batez aritu izana.

15. artikulua

Ebaluatu beharreko baldintzak

1. Estatu kideek aztertuko dute 2. paragrafoan aurreikusitako betekizunak beren ordenamendu juridikoan jaso diren, eta beharrezkoa den guztia egingo dute betekizun horiek 3. paragrafoan aurreikusitako baldintzekin bateragarri izan daitezzen. Estatu kideek beren lege-, erregelamendu- edo administrazio-xedapenak moldatuko dituzte baldintza horiekin bateragarri izan daitezzen.

2. Estatu kideek aztertuko dute haien ordenamendu juridikoetan zerbitzu-jarduera bat atzitzeko edo horretan aritzeko betekizun ez-diskriminatzaile hauek gordetzea exijitzen den ala ez:

- a) muga kuantitatibo edo lurraldekoak, eta bereziki, biztanleriaren arabera edo emaileen arteko gutxieneko distantziaren arabera ezarritako mugak;

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- b) emaila forma juridiko jakin bat hartzera behartzen duten betekizunak;
- c) sozietate baten kapitala edukitzeari buruzko betekizunak;
- d) 2005/36/EE Zuzentarauan aurreikusitako gaiei buruzko betekizunez edo Erkidegoaren bestelako tresnetan aurreikusitakoez bestelako betekizunak, delako zerbitzu-jardueraren atzipena, horien jardueraren izaera espezifiko delako medio, emaila-multzo jakin bati erreserbatzeko direnak;
- e) lurralde nazional berean hainbat establezimendu izateko debekua;
- f) gutxieneko langile-kopuru bat izatera behartzen duten baldintzak;
- g) zerbitzu-emailak errespetatu beharreko gutxieneko eta/edo gehieneko tarifak;
- h) zerbitzu-emailak bere zerbitzua bideratzeaz gain, beste zerbitzu espezifiko batzuk egin beharra.

3. Estatu kideek egiaztatuko dute 2. paragrafoan aurreikusitako eskakizunek baldintza hauek betetzen dituztela:

- a) diskriminaziorik eza: betekizunak ez daitezela nazionalitatean oinarrituz, edo sozietateei dagokienez, gizarte-helbidean oinarrituz diskriminatzaileak izan, ez zuzenean, ezta zeharka ere.
- b) beharra: betekizunak interes orokorreko premiazko arrazoi baten bidez justifikatuta egon daitezela;
- c) proportzionaltasuna: betekizunak lortu nahi den helburua erdiesteko erabilgarri izan daitezela, helburu hori lortzeko behar den baino harago joan ez daitezela eta hain murriztaileak ez diren neurrien bidez helburu berbera lortuko luketen neurriekin ordezkagarriak izan ez daitezela.

4. Artikulu honetako 1., 2. eta 3. paragrafoak interes ekonomiko orokorreko zerbitzuen alorraren inguruko legediari baino ez zaizkio aplikatuko, betiere, paragrafo horiek aplikatzeak haien gain utzi diren eginkizunak izatez edo eskubidez betetzea eragozten ez duen bitartean.

5. 39. artikuluko 1. paragrafoan aurreikusi den elkarren ebaluazio-txostenean, estatu kideek hauek zehaztuko dituzte:

- a) ezarri nahi dituzten betekizunak eta zergatik uste duten betekizun horiek 3. paragrafoan aurreikusitako baldintzak betetzen dituztela;
- b) ezabatu edo sinplifikatu dituzten betekizunak.

6. 2006ko abenduaren 28tik aurrera, estatu kideek 3. paragrafoan ezarritako baldintzak betetzekotan baino ezingo dituzte 2. paragrafoan aurreikusi direnen motako betekizun berriak ezarri.

7. Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko diote 6. paragrafoan jasotako betekizunak aurreikusten dituen lege-, erregelamendu- edo administrazio-xedapen berri oro. Batzordeak xedapen horien berri emango die gainerako estatu kideei. Jakinarazpen horrek ez die estatu kideei eragotziko xedapenok onartzea.

Jakinarazpena jaso eta hiru hilabeteko epean, Batzordeak aztertuko du xedapen berri horiek Erkidegoko Zuzenbidearekin bateragarriak diren, eta egoki baderitza, estatu kideari xedapen horiek aplika ez ditzan edo indargabetu ditzan eskatzeko erabakia emango du.

98/34/EE Zuzentzua betetzen duen nazio mailako lege-proiektuaren jakinarazpenak zuzentzua honetan ezarritako jakinarazpen-betebeharra ere gordeko du.

IV. KAPITULUA

ZERBITZUEN ZIRKULAZIO ASKEA

1. ATALA

Zerbitzuak emateko askatasuna eta salbuespenak

16. artikulua

Zerbitzuak emateko askatasuna

1. Emailak beren ezarpen-lekukoa ez den estatu kide batean zerbitzua emateko duten eskubidea errespetatuko dute estatu kideek.

Zerbitzua ematen deneko estatu kideak bere lurralde barruan bermatuko du zerbitzu-jardueraren atzipen-askatasuna nahiz aritze askea.

Estatu kideek, beren lurraldeetan zerbitzu-jarduera bat atzitu edo horretan aritzeko, ezin izango dituzte printzipio hauek betetzen ez dituzten baldintzak ezarri:

- a) diskriminaziorik eza: baldintza ezin da diskriminatzailea izan nazionalitate-arrazoiengatik edo, pertsona juridikoen kasuan, beren ezarpen-lekuko estatu kidearen arabera;
- b) premia: ordena publikoaren arrazoiengatik, segurtasun publikoengatik, osasun publikoengatik edo ingurugiroaren babesarengatik justifikatu beharko da baldintza;
- c) proportzionaltasuna: lortu nahi den helburua erdiesteko egokia izan behar du baldintzak, eta ez da helburu hori erdiesteko beharrezkoa dena baino harago joango.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. Estatu kideek ezingo dute beste estatu batean kokatutako emaile baten zerbitzu-emate askea murriztu betekizun hauek aplikatuz:

- a) emailea estatu kidearen lurraldean kokatuta egoteko betebeharra;
- b) emaileak herrialdeko autoritate eskumendunen baimena lortzeko betebeharra, herrialdearen lurralde barruko profesionalen elkargo edo elkarte batean inskribatzea barne, zuzentarau honetan edo Erkidegoko Zuzenbideko beste tresnetan aurreikusi diren kasuetan izan ezik;
- c) emaileak herrialdeko lurraldetan dagozkion zerbitzuak eman ahal izateko behar duen azpiegitura lortzeko debekua, bulegoak edo kabineteak barne;
- d) zerbitzua era independentean ematea eragotzi edo oztopatzen duen emaile eta jasotzailearen arteko kontratu-erregimena aplikatzea.
- e) zerbitzu-jarduera batean aritzeko, emaileak nortasun-agiri espezifiko bat izateko betebeharra, autoritate eskumendunek ematen dutena;
- f) zerbitzu-ematearen parte osagarri diren ekipamenduaren eta materialaren gaineko betekizunak, laneko osasun eta segurtasunerako beharrezko direnak salbu;
- g) 19. artikuluan aurreikusitako zerbitzuen zirkulazio askearen murrizketak.

3. Xedapen hauek ez diote emailearen lekualdaketa jomuga den estatu kideari eragotziko zerbitzu-jarduera bat emateari dagokionez, betekizunak inposatzea, betiere, ordena publikoarekin, segurtasun publikoarekin, osasun publikoarekin edo ingurugiroaren babesarekin erlazionatutako arrazoiengatik bada, eta 1. paragrafoari jarraiki. Xedapenek ez dute eragotziko, ezta ere, estatu kideak, Erkidegoko Zuzenbideari jarraiki, enplegu-baldintzen inguruko bere xedapenak aplikatzea, hitzarmen kolektiboetan ezarritakoak barne.

4. Gehienez jota 2011ko abenduaren 28an, eta Erkidego mailan estatu kideekin nahiz gizarte-hizketakideekin kontsultatu ondoren, Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari aurkeztuko die artikulua honen aplikazioari buruzko txostena. Bertan, zuzentarau honetan jorratu diren zerbitzu-jardueren inguruko harmonizazio-neurriak proposatu beharra aztertuko du.

17. artikulua

Zerbitzuak askatasunez emateko printzipioaren salbuespen osagarriak

16. artikulua ez zaie hauei aplikatuko:

1) beste estatu kide batean ematen diren interes ekonomiko orokorreko zerbitzuei, besteak beste:

- a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 97/67/EE Zuzentarauan, 1997ko abenduaren 15ekoan, Erkidegoko posta-zerbitzuen barne-merkatua garatu eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko arau komunei buruzkoan ⁽¹⁾ mintzagai diren posta-zerbitzuei;
- b) Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/54/EE Zuzentarauan, 2003ko ekainaren 26koan, elektrizitatearen barne-merkatutarako arau komunei buruzkoan ⁽²⁾ mintzagai diren sektore elektrikoko zerbitzuei;
- c) Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/55/EE Zuzentarauan, 2003ko ekainaren 26koan, gas naturalaren barne-merkatutarako arau komunei buruzkoan ⁽³⁾ mintzagai diren gasaren sektoreko zerbitzuei;
- d) ur-banaketa eta -hornikuntzarako zerbitzuei eta hondakin-uren zerbitzuei;
- e) hondakinen tratamenduari;

2) 96/71/EE Zuzentaruak jorratzen dituen gaiei;

3) Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 95/46/EE Zuzentarauan, 1995eko urriaren 24koan, hau da, datu pertsonalen tratamenduari nahiz datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoen babesari buruzkoan, mintzagai diren gaiei ⁽⁴⁾;

4) Kontseiluaren 1977ko martxoaren 22ko 77/249/EEE Zuzentarauan, abokatuek zerbitzuak era askean eman ditzaten errazteko xedea duenean ⁽⁵⁾, mintzagai diren gaiei.

5) zorrak bide judiziala baliatuz kobratzearekin erlazionatutako jardueri;

6) 2005/36/EE Zuzentaruako II tituluan mintzagai diren gaiei, zerbitzua ematen den estatu kidean jarduera bat lanbide jakin bati erreserbatzen dioten betekizunak barne;

¹ EO L 15, 1998.1.21ekoa, 14. or. Azken aldiz 1882/2005 (EE)

Erregelamenduaren bidez (EO L 284, 2003.10.31koa, 1. or.) aldatutako zuzentaraua.

² EO L 176, 2003.7.15ekoa, 37. or. Azken aldiz Batzordearen 2006/653/EE Erabakiaren bidez (EO L 270, 2006.9.29koa, 72. or.) aldatutako zuzentaraua.

³ EO L 176, 2003.7.15ekoa, 57 or.

⁴ EO L 281, 1995.11.23koa, 31. or. Azken aldiz 1882/2003 (EE) Erregelamenduaren bidez aldatutako zuzentaraua.

⁵ EO L 78, 1977.3.26koa, 17. or. Azken aldiz 2003ko Atxikitze Aktaren bidez aldatutako zuzentaraua.

- 7) 1408/71 Erregelamenduak (EEE) jorratzen dituen gaiiei;
- 8) pertsonen zirkulazio askeari nahiz horien egoitzari buruzko izapideei dagokienez, 2004/38/EE Zuzentarauak araututako gaiiei, hau da, zerbitzua ematen den estatuko autoritate eskumendunen administrazio-izapideak ezartzen dituzten gaiiei, onuradunek nahitaez bete behar dituztenei;
- 9) zerbitzu bat emateko beste estatu kide batera doazen hirugarren estatuetaiko biztanleei dagokienez, elkarrekiko baliokidetasun-erregimena ez duten hirugarren herrialdeetako biztanleei bisa edo egoitza-baimena izatea inposatzeko estatu kideek duten aukerari, elkarrekiko baliokidetasun hori Schengengo Hitzarmena aplikatzeko Hitzarmenaren 21. artikuluan, 1985eko ekainaren 14koan, muga komunetan kontrolak mailaka ezabatzeari buruzkoan ⁽¹⁾ aipatzen delarik, ezta zerbitzua emango den estatu kidera sartzerakoan, edo horren ondoren, emaileri autoritate eskumendunen aurrean aurkeztera behartzeko estatu kideek duten aukerari ere;
- 10) hondakinen garraioari dagokionez, Kontseiluaren 1993ko otsailaren 1eko 259/93 Erregelamenduari (EEE), Europako Erkidegoaren sarreran, barruan eta irteeran hondakin-garraioen zaintza eta kontrola egiteari buruzkoari ⁽²⁾;
- 11) egile-eskubide eta antzerakoei nahiz Kontseiluaren 87/54/EEE Zuzentarauan, 1986ko abenduaren 16koan, produktu erdieroaleen topografien babes juridikoari buruzkoan ⁽³⁾, eta Parlamentu Europarraren eta Kontseiluaren 96/9/EE Zuzentarauan, 1996ko martxoaren 11koan, datu-baseen nahiz jabetza industrialeko eskubideen babesari buruzkoan jasotako eskubideei ⁽⁴⁾;
- 12) legearen arabera, notario baten esku hartzea eskatzen duten egintzei;
- 13) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/43/EE Zuzentarauak, 2006ko maiatzaren 17koak, urteko kontuen nahiz kontu finkatuen lege-auditoriari buruzkoak ⁽⁵⁾, jorratutako gaiiei;

¹ EO L 239, 2000.9.22koa, 19. or. Azken aldiz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1160/2005 (EE) Erregelamenduaren bidez (EO L 191, 2005.7.22, 18. or.) aldatutako hitzarmena.

² EO L 30, 1993.2.6koa, 1. or. Azken aldiz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2557/2001 (EE) Erregelamenduaren bidez (EO L 349, 2002.12.31, 1. or.) aldatutako erregelamendua.

³ EO L 24, 1987.1.27koa, 36 or.

⁴ EO L 77, 1996.3.27koa, 20 or.

⁵ EO L 157, 2006.6.9koa, 87 or.

14) beste estatu kide batean finantza-errentamenduan jarriko diren ibilgailuen matrikulazioa;

15) kontratuko nahiz kontratuz kanpoko betebeharrei aplikagarri zaizkien xedapenei, kontratuen era barne, nazioarteko Zuzenbide pribatuaren arauari jarraiki.

18. artikulua

Banako kasuetako salbuespenak

1. Salbuespen gisa, eta 16. artikuluan xedatutako gorabehera, estatu kideek zerbitzuen segurtasunari buruzko neurriak hartzeko aukera izango dute, ezarpen-lekua beste estatu batean duen emaileri dagokionez.

2. Artikulu honetako 1. paragrafoan aurreikusitako neurriak 35. artikuluan jasotako elkarrekiko asistentziaren prozedura errespetatuz eta baldintza hauek betetzen badira baino ezingo dira hartu:

- a) neurria hartzeko oinarri diren xedapen nazionalak Erkidegoaren harmonizazioaren menpe ez badaude zerbitzuaren segurtasunaren arloan;
- b) neurriak jasotzaileari babes-maila altuagoa eskaintzen badio estatu kidearen xedapen nazionaletan xedatutakoek baino;
- c) ezarpen-lekuko estatu kideak ez badu neurriak aplikatu, edo aplikatu dituen neurriak 35. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako neurriekin alderatuta, nahikoak ez badira;
- d) neurriak proportzionaltasuna gordetzen badu.

3. Artikulu honetako 1. eta 2. paragrafoetan xedatutakoak ez ditu oztopatzen zerbitzuen zirkulazio askea bermatzeko edo askatasun horren salbuespenak onartzeko Erkidegoaren tresnetan xedatutakoak.

2. ATALA

Zerbitzu-jasotzaileen eskubideak

19. artikulua

Debekatutako murrizketak

Estatu kideek ezingo diote jasotzaileari inposatu beste estatu kide batean kokatutako emaile batek emandako zerbitzuen erabilpena murrizten duen betekizunik, zehazki, betekizun hauek:

- a) herrialdeko autoritate eskumendunen baimena lortzeko edo horien aurrean aitortpena egiteko betebeharra;
- b) emailea beste estatu kide batean kokatuta egoteagatik, edo ematea exekutatzeko lekuaren arabera, diru-laguntzak jasotzeko aukerak

murrizten dituzten mugak.

20. artikulua

Diskriminatzeko debekua

1. Estatu kideek behar den guztia egingo dute jasotzaileak bere nazionalitatean edo bizilekuan oinarritutako betekizun diskriminatzaileak paira ez ditzan.

2. Estatu kideek behar den guztia egingo dute emaileak publikoaren eskura jarri dituen zerbitzuen baldintza orokorrek ez dezaten jaso jasotzailearen nazionalitatean edo bizilekuan oinarritutako baldintza diskriminatzaileak, baina horrek ez du oztopatu behar irizpide objektiboak baliatuz justifikatzen diren desberdintasunak ezartzea atzipen-baldintzei dagokienez.

21. artikulua

Jasotzaileei eman beharreko asistentzia

1. Estatu kideek behar den guztia egingo dute jasotzaileek beren bizileku diren estatu kideetan hauek lortzeko aukera izan dezaten:

- a) beste estatu kideetan zerbitzu-jardueren atzipenari eta horietan aritzeari aplikagarri zaizkien betekizunen inguruko informazioa, batez ere, kontsumitzaileen babesarekin erlazionatutako informazioa.
- b) emailearen eta jasotzailearen arteko auzirik egotekotan, balia daitezkeen errekurtsioei buruzko informazio orokorra;
- c) emaile nahiz jasotzaileei asistentzia erabilgarria eman diezaieketen elkarte edo erakundeen datuak, kontsumitzaileen zentro europarren sareko zentroenak barne.

Beharrezkoa bada, autoritate eskumendunek emandako aholkularitzaren barruan gidaliburu simple eta zehatza sartuko dute. Informazioa eta asistentzia era argi eta ezbairik gabean emango dira, urrutitik horiek erraz atzitzeko aukera egongo da, baita bide elektronikoak baliatuz ere, eta eguneratuta egongo dira.

2. Estatu kideek leihatila bakarren esku edo beste edozein erakunderen esku utzi ahal izango dituzte 1. paragrafoan jasotako eginkizunak, besteak beste, kontsumitzaileen Europako zentroen sareko kontaktu-guneen, kontsumitzaileen elkarten edo enpresa-informaziorako zentroen (Euro Info Centres) esku.

Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko dizkiote izendatutako erakundeen izenak eta helbideko datuak. Batzordeak estatu kide guztiei helaraziko dizkie.

3. Artikulu honetako 1. eta 2. paragrafoetan hitzartutako betekizunak betetzeko beharrezkoa bada, delako estatu kidearen erakundearengana joko du jasotzaileak erabili duen erakundeak. Estatu kidearen

erakundeak ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dizkio erakunde eskatzaileari behar dituen datuak, eta eskatzaileak informazioa helaraziko dio. Estatu kideek behar den guztia egingo dute erakunde horien arteko lankidetzan egon dadin, eta elkarrekin eraginkorki lan egiteko behar den guztia egin dezaten. Estatu kideek, Batzordearekin batera, 1. paragrafoa aplikatzeko behar diren neurri praktikoko guztiak ezarriko dituzte.

4. Batzordeak, 40. artikuluko 2. paragrafoan mintzagai den prozedurari jarraiki, artikuluko 1., 2. eta 3. paragrafoak aplikatzeko neurriak hartuko ditu, eta estatu kide desberdinetako erakundeen arteko informazio-elkartrukeen xehetasun teknikoak zehaztuko ditu, batez ere, informazio-sistemak elkarren lekutik operatzeko aukera, eta betiere, arau komunak kontutan hartuz.

V. KAPITULUA

ZERBITZUEN KALITATEA

22. artikulua

Zerbitzu-emailei eta zerbitzuei buruzko informazioa

1. Estatu kideek behar den guztia egingo dute zerbitzu-emaileek informazio hau jasotzaileen esku jar dezaten:

- a) zerbitzu-emailearen izena, estatutua eta forma juridikoa, establezimenduaren helbide geografikoa nahiz bide elektronikoak baliatuz berarekin harremanetan azkar jartzeko eta zuzenean berarekin komunikatzeko aukera ematen duten datuak;
- b) zerbitzu-emailea merkataritza-erregistroren batean edo antzeko erregistro publikoren batean inskribaturik dagoen kasuetan, merkataritza-erregistro hori eta inskripzio-zenbakia, edo erregistro horretako identifikazio-datu baliokideak;
- c) jarduera baimentze-erregimen baten menpe dagoen kasuetan, agintari eskumendunen edo leihatila bakarren datuak;
- d) zerbitzu-emailea BEZaren peko jardueraren batean diharduen kasuetan, Kontseiluaren 77/388/EEE Seigarren Zuzentarauko (1977ko maiatzaren 17koa, negozio-bolumenaren gaineko zergei buruz estatu kideek dituzten legediak harmonizatzeari buruzkoa – Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Sistema Komuna: zerga-oinarri uniforme) ⁽¹⁾ 22. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako identifikazio zenbakia;

¹ EO L 145, 1977.6.13koa, 1. or. Azken aldiz 2006/18/EE Zuzentarauaren bidez (EO L 51, 2006.2.22koa, 12. or.) aldatutako zuzentzaraua.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- e) erregulatutako lanbideei dagokienez, zerbitzu-emailea inskribatu den profesionalen elkargo edo erakunde baliokide oro, baita titulu profesionala eta zein estatu kidetan lortu den ere;
 - f) dagokionean, zerbitzu-emaileak erabilitako baldintza eta klausula orokorrak;
 - g) dagokionean, kontratuari aplikagarri zaion legediaren edota organo judizial eskumendunen inguruan zerbitzu-emaileak erabilitako kontratu-klausulak.
 - h) egotekotan, legeak inposatu gabeko saldu ondorengo bermerik dagoen;
 - i) zerbitzuaren prezioa, zerbitzu-emaileak zerbitzu-mota jakin baterako prezio jakin bat aurretiaz ezartzen duenean;
 - j) zerbitzuaren ezaugarri nagusiak, testuinguruan argi geratzen ez badira;
 - k) 23. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako bermeak edo aseguruak, eta batez ere, aseguratzailearen edo bermatzailearen datuak eta estaldura geografikoa.
2. Estatu kideek beharrezkoa den guztia egingo dute zerbitzu-emailearen aukeraren arabera 1. paragrafoan aurreikusitako datuak honela trata daitezten:
- a) zerbitzu-emaileak bere ekimen propioz jakinarazi ditzan;
 - b) kontratua sinatzen edo zerbitzua ematen den lekuan jasotzailearentzat eskuragarri egon daitezten;
 - c) bide elektronikoak baliatuz, hau da, zerbitzu-emaileak jakinarazitako helbide elektroniko baten bidez, jasotzaileak erraz eskuratzeko moduan egon daitezten;
 - d) zerbitzuak era zehatzean aurkezteko jasotzaileak zerbitzu-emailearengandik jasotzen duen informazio-dokumentu orotan egon daitezten.
3. Estatu kideek behar den guztia egingo dute zerbitzu-emaileek, jasotzaileak hala eskatuta, informazio osagarri hau jasotzaileen esku jar dezaten:
- a) zerbitzu-emaileak ez duenean zerbitzu-mota jakin baterako prezioa aurretiaz zehaztu, edo ezinezkoa bada prezio zehatza esatea, prezioa jasotzaileak egiaztatu ahal izateko eran kalkulatzeko metodoa, edo nahikoa xehetasun duen aurrekontua;
 - b) erregulatutako lanbideen kasuan, ezarpen-lekuko estatu kidean aplikagarri diren arau profesionalen erreferentzia eta horiek atzitzeko bideak;
 - c) diziplina anitzeko jardueren inguruko, delako zerbitzuarekin erlazionatuta dauden elkarten inguruko nahiz interesen gatazkak ekiditeko hartu diren neurrien inguruko informazioa. Zerbitzu-emaileek beren zerbitzua xehetasunez aurkezteko erabiltzen dituzten informazio-dokumentu guztietan jaso beharko da informazio hori;
 - d) zerbitzu-emaileak onartutako jokabide-kodeak, halakorik onartu badu, baita kode horiek bide elektronikoak baliatuz kontsultatzeko helbidea eta zein hizkuntzatan kontsulta daitezkeen ere;
 - e) zerbitzu-emaile batek jokabide-kode bat hartu duenean, edo auziak ebazteko judizialak ez diren baliabideak erabiltzea aurreikusten duen profesionalen elkarte edo erakunderen bateko kide denean, horri dagokion informazioa. Zerbitzu-emaile horrek informazio zehatza emango du auziak ebazte aldera judizialak ez diren bideak erabiltzeko baldintza eta ezaugarriei buruz.
4. Estatu kideek beharrezkoa den guztia egingo dute kapitulu honetan jasotako zerbitzu-emaileak eman beharreko informazioa eskuragarri egon dadin edo era argi eta ezbairik gabean eman dadin, kontratua sinatu baino lehen nahikoa aurretiaz, edo kontratua idatzirik ez egotekotan, zerbitzua eman baino lehen.
5. Kapitulu honetan aurreikusitako informazio-betebeharrak Erkidegoaren zuzenbidean jada aurreikusitako betekizunei gehituko zaizkie, eta ez dira oztopo izango estatu kideek beren lurraldean kokatuta dauden zerbitzu-emaileei aplikagarri zaizkien informazio-betekizun osagarriak ezar ditzaten.
6. 40. artikulua 2. paragrafoan aurreikusitako prozedurari jarraiki, Batzordeak lanbide jakin batzuen berezitasunen arabera zehaztu ahal izango du artikuluko 1. eta 3. paragrafoetako informazioaren edukia, eta artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoa praktikan aplikatzeko era ere zehaztuko du.

23. artikulua

Erantzukizun profesionaleko aseguru eta bermeak

1. Estatu kideek behar den guztia egin ahal izango dute jasotzailearen nahiz hirugarrenen osasunerako edo segurtasunerako zein jasotzailearen finantza-segurtasunerako arrisku zuzena dakarten zerbitzuen emaileek erantzukizun profesionaleko aseguruak, xedari dagokionez baliokidea den bermea edo antzerako akordioa sina dezaten, arriskuaren izaera eta neurrirako egokia izan behar duena.

2. Estatu kideek, zerbitzu-emaile bat haien lurraldean kokatzen denean, ez diote nahitaez erantzukizun profesionaleko aseguruak edo bermea exijituko, zerbitzu-emaile horrek xedari, estalitako arriskuei, aseguratutako zenbatekoari edo beste estatu

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

batean bermeak dituen limite eta balizko salbuespenei dagokienez funtsean balioakidea den berme batez jada estalia badago. Baliokidetasuna ez bada erabatekoa, estatu kideek berme osagarria eskatu ahal izango dute oraindik estali gabeko elementuak estaltzeko.

Estatu kideak bere lurraldean kokatutako zerbitzu-emailei erantzukizun profesionaleko aseguru edo bermea sinatzea exijitzen dienean, baliozko frogatzat onartuko du beste estatu kide batean kokatutako kreditu-entitateek edo aseguru agentziek emandako ziurtagiria.

3. Artikulu honetako 1. eta 2. paragrafoek ez diete eragingo aseguru profesionalei edo Erkidegoaren tresnetan ezarritako beste bermeei.

4. Artikulu honetako 1. paragrafoa aplikatze aldera, eta 40. artikuluko 2. paragrafoan mintzagai den erregelamendu-prozedurari jarraiki, Batzordeak artikulu honetako 1. paragrafoan aipatutako ezaugarriak dituzten zerbitzuen zerrenda finkatu ahal izango du. 40. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako prozedurari jarraiki, Batzordeak funtsezkoak ez diren zuzentarau honetako elementuak aldatzeko neurriak ere har ditzake, eta zuzentaraua osa dezake artikulu honetako 1. paragrafoan aipatutako aseguruak edo bermeak arriskuaren izaera eta neurrirako egokiak diren ala ez definitzeko aukera ematen duten irizpide komunen bidez.

5. Artikulu honi dagokionez, hauek ulertuko dira:

- "arriku zehatz eta zuzena"; zerbitzua ematetik zuzenean sortzen den arrikuak;

- "segurtasuna edo osasuna"; jasotzaile bati edo hirugarren bati dagokionez, heriotzaren edo zauri pertsonal larrien prebentzioa;

- "finantza-segurtasuna"; jasotzaile bati dagokionez, diru-galera handiak edo ondasunen balio-galera handiak saihestea;

- "erantzukizun profesionaleko aseguru"; jasotzaileekiko eta, hala badagokio, hirugarrenekiko izan litzakeen erantzukizunak estaltze aldera zerbitzu-emaile batek kontratatutako aseguruak.

24. artikulua

Erregulatutako lanbideen merkataritza-komunikazioak

1. Erregulatutako lanbideen kasuan, estatu kideek merkataritza-komunikazioak egiteko guztizko debekuak ezabatuko dituzte.

2. Estatu kideek beharrezkoa den guztia egingo dute erregulatutako lanbideen merkataritza-komunikazioak Erkidegoko Zuzenbidearen arabera arau profesionalak betetzen dituztela ziurtatzeko, arau horiek, zehazki, lanbidearen osotasuna eta duintasuna baitute xede gisa, baita lanbide-isilpekotasuna ere, lanbide bakoitzaren izaera espezifikorekin era

koherentean. Merkataritza-komunikazioen inguruko arau profesionalak ez dira diskriminatzaileak izango, interes orokorreko premiazko arrazoi baten bidez justifikatuko dira eta proportzionaltasuna gordeko dute.

25. artikulua

Diziplina anitzeko jarduerak

1. Estatu kideek beharrezkoa den guztia egingo dute zerbitzu-emaileek paira ez ditzaten jarduera espezifiko bakar bat egitera behartzen dituzten betekizunak, ezta hainbat jarduera aldi berean edo elkartuta egiteko oztopoak jartzen dituztenak ere.

Xedatutakoaren kalterik gabe, emaile hauei horrelako betekizunak ezarri ahal izango zaizkie:

a) erregulatutako lanbideei, lanbide bakoitzaren izaera espezifikorekin onoriozko betekizun deontologikoak betetzeko justifikatuta badago, eta haien independentzia eta inpartzialtasuna mantentzeko beharrezkoa denean;

b) egiaztatze-zerbitzuak, egiaztagiri-zerbitzuak, kontrol teknikoaren zerbitzuak, nahiz proba- edo saiakera-zerbitzuak ematen dituzten zerbitzu-emailei, beren independentzia eta inpartzialtasuna bermatzeko justifikatuta badago.

2. Artikulu honetako 1. paragrafoa a) eta b) idatzatietan aurreikusitako zerbitzu-emaileen arteko diziplina anitzeko jarduerak baimenduta dauden kasuetan, estatu kideek beharrezkoa den guztia egingo dute hauek lortzeko:

a) interesen gatazkak eta jarduera desberdinen arteko bateraezintasunak ekiditea;

b) jarduera jakin batzuek eskatzen duten independentzia eta inpartzialtasuna bermatzea;

c) jarduera desberdinen betekizun deontologikoak haien artean bateragarriak direla bermatzea, batez ere, lanbide-isilpekotasunari dagokionez.

3. 39. artikuluko 1. paragrafoan aurreikusitako txostenean, estatu kideek artikulu honetako 1. paragrafoan jasotako betekizunen pean dauden zerbitzu-emailei zehaztuko dizkiete betekizun horien edukia eta horiek justifikatzeko arrazoiak.

26. artikulua

Zerbitzuen kalitate-politika

1. Estatu kideek, Batzordearekin lankidetzan, zerbitzu-emaileek era boluntarioan zerbitzuen kalitatea berma dezaten sustatzeko neurri osagarriak hartuko dituzte, zehazki, metodo hauetako baten

bidez:

- a) erakunde independenteek edo kreditatuek haien jarduerak egiaztatu edo ebaluatzea;
- b) haien kalitate-gutun propioa prestatzea edo Erkidego mailako erakunde profesionalak prestatutako gutun nahiz etiketetan parte hartzea.

2. Estatu kideek beharrezkoa den guztia egingo dute zerbitzu-emaile nahiz jasotzaileek erraz atzi dezaten etiketak eta zerbitzuen inguruko kalitate-markak esleitzeko irizpideei buruzko informazioa.

3. Estatu kideek, Batzordearekin lankidetzan, neurri osagarriak hartuko dituzte beren lurraldeetako profesionalen elkargoak, merkataritza-ganberak, lanbide-ganberak nahiz kontsumitzaileen erakundeak elkarrekin lan egitera bultzatu, eta horrela, Erkidego mailan zerbitzuen kalitatea bermatzeko, batez ere, zerbitzu-emaileen gaitasunen ebaluazioa erraztuz.

4. Estatu kideek, Batzordearekin lankidetzan, neurri osagarriak hartuko dituzte zerbitzuen kalitate eta akatsen inguruko ebaluazio independenteen garapena bultzatze aldera, batez ere, kontsumitzaileen erakundeen aldetik, eta bereziki, Erkidego mailan alderatze-proba edo saiakerak eta emaitzen jakinarazpena garatzeko.

5. Estatu kideek, Batzordearekin lankidetzan, estatu kideetako zerbitzu-emaileen zerbitzuen arteko bateragarritasuna, jasotzailearentzako informazioa eta zerbitzuen kalitatea errazteko borondatezko europar arauen garapena sustatuko dute.

27. artikulua

Auziak ebaztea

1. Estatu kideek beharrezkoak diren neurri orokorrak hartuko dituzte emaileek harremanetarako datuak eman ditzaten, zehazki, posta helbide bat eta fax zenbaki bat edo posta elektronikoko helbide bat eta telefono zenbaki bat, jasotzaile guztiek, beste estatu kide batean bizi direnak barne, emandako zerbitzuaren inguruko erreklamazioak edo informazio-eskakizunak zuzenean helarazteko aukera izan dezaten. Emaileek beren legezko helbidea jakinaraziko dute posta-helbide arruntarekin bat ez badator.

Estatu kideek beharrezko neurri orokorrak hartuko dituzte emaileek ahalik eta azkarren erantzun ditzaten lehen lerrokadan mintzagai diren erreklamazioak, eta konponbide on bat aurkitze aldera, arduraz joka dezaten.

2. Estatu kideek beharrezko neurri orokorrak hartuko dituzte emaileek zuzentarau honetan aurreikusitako informazio-betebeharrak betetzen ditzutela eta datuak zehatzak direla frogatu behar izan dezaten.

3. Ebazpen judizial bat exekutatzeko berme

ekonomikoa behar denean, estatu kideek aintzat hartuko dituzte beste estatu kide batean kokatutako kreditu-entitate edo aseguru-enpresek emandako berme baliokideak. Kreditu-entitate horrek estatu kide batean baimendua egon behar du, 2006/48/EE Zuzentarauaren arabera, eta aseguru-enpresa horrek hauen arabera baimenduta egon behar du, dagokion bezala: Kontseiluaren 73/239/EEE Lehen Zuzentaraua, 1973ko uztailaren 24koa, bizitza-asegurua ez den aseguru zuzenaren jardura atzitu edo horretan aritzearen inguruko lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenei buruzkoa ⁽¹⁾, edo, kasuan kasu, Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/83/EE Zuzentaraua, 2002ko azaroaren 5koa, bizitza-aseguruari buruzkoa ⁽²⁾.

4. Estatu kideek beharrezko diren neurri orokorrak hartuko dituzte jokabide-kode baten pean dauden edo auziak ebazteko judizialak ez diren mekanismoak baliatzea aurreikusten duten elkarte nahiz erakunde profesional bateko kide diren emaileek jasotzaileari hala aitortu diezaioten zerbitzua zehazki aurkezteko erabiltzen duten dokumentu orotan, eta mekanismo horren ezaugarriei nahiz erabiltzeko baldintzei buruzko informazio zehatza eman dezaten.

VI. KAPITULUA

ADMINISTRAZIO-LANKIDETZA

28. artikulua

Elkarrekiko asistentzia: betebeharrak

1. Estatu kideek asistentzia emango diote elkarri eta elkarrekin eraginkorki lan egiteko neurriak hartuko dituzte emaileen nahiz horien zerbitzuen ikuskapena bermatzeko.

2. Kapitulu honi dagokionez, estatu kideek kontakturako gune bat edo gehiago zehaztuko dituzte, eta horien datuak helaraziko dizkiete gainerako estatu kideei nahiz Batzordeari. Batzordeak aldizka argitaratu eta eguneratuko du kontakturako guneen zerrenda.

3. Kontrolak, ikuskapenak eta ikerketak bideratzeko kapitulu honen arabera eskariak eta informazio-eskariak behar bezala arrazoituta egon beharko dira, eta bereziki, eskariaren arrazoa zehaztu beharko dute. Elkartrukatutako informazioa eskaria motibatu duen auziarekin erlazionatutako gaietan baino ez da erabiliko.

4. Beste estatu kide bateko autoritate eskumendunek asistentzia-eskari bat egiten dutenean, estatu kideek beharrezkoa den guztia egingo dute haien lurraldean

¹ EO L 228, 1973.8.16koa, 3. or. Azken aldiz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/68/EE Zuzentarauaren bidez (EO L 323, 2005.12.9koa, 1. or.) aldatutako zuzentaraua.

² EO L 345, 2002.12.19koa, 1. or. Azken aldiz 2005/68/EE Zuzentarauaren bidez aldatutako zuzentaraua.

kokatutako emailek herrialdeko autoritate eskumendunei jakinaraz diezaieten, herrialdeko legediei jarraiki, haien jarduera kontrolatzeko behar den informazio guztia.

5. Estatu kide batek informazio- edo kontrol- ikuskapen nahiz ikerketa-eskari bati erantzuteko zailtasunak dituenean, azkar jakinaraziko dio estatu kide eskatzaileari konponbideren bat bilatzeko.

6. Estatu kideek ahalik eta lasterren helaraziko diete beste estatu kideei edo Batzordeari eskatutako informazioa, bide elektronikoak baliatuz.

7. Estatu kideek beharrezkoa den guztia egingo dute beren lurraldeko agintaritzak eskumendak kontsulta ditzakeen emaileen erregistroak beste estatu kideetako autoritate eskumendun baliokideen eskura ere egon daitezzen.

8. Estatu kideek Batzordeari informazioa helaraziko diote beste estatu kideren batek elkarrekiko asistentziaren betebeharra bete ez duen kasuei buruz. Beharrezkoa bada, Batzordeak beharrezko neurriak hartuko ditu delako estatu kideek elkarrekiko asistentziaren betebeharra betetzen dutela ziurtatzeko, baita tratatuko 226. artikuluan jasotako prozedura ere. Batzordeak aldizka emango die elkarrekiko asistentziari buruzko xedapenen funtzionamenduaren berri estatu kideei.

29. artikulua

Ezarpn-lekuko estatu kideak elkarrekiko asistentziari dagokionez dituen betebeharrak

1. Beste estatu kideren batean zerbitzuak ematen dituzten zerbitzu-emaileen kasuetan, ezarpn-lekuko estatu kideak informazioa emango dio beste estatu kideari, azken horrek hala eskatzen badio. Informazio hori bere lurraldean ezarritako establezimenduei buruzkoa izango da, eta, bereziki, berretsi behar du bere lurralde nazionalean ezarrita dagoen ala ez eta legezko jarduerak egiten dituen ala ez.

2. Ezarpn-lekuko estatu kideak beste estatu kideak eskatzen dituen egiaztapenak, ikuskapenak eta ikerketak egingo ditu, azken horri emaitzak jakinaraziko dizkio, eta, hala badagokio, hartutako neurrien berri emango dio. Hori egitean, estatu kidearen barruan esleituta dituzten eskumenen muga barruan jardungo dira autoritate eskumendunak. Autoritate eskumendunek kasu bakoitzerako neurririk egokienak erabaki ahal izango dituzte, beste estatu kide baten eskaerari erantzuteko.

3. Baldin eta estatu kideren batek egiazki jakiten badu bere lurraldean ezarrita izan eta zerbitzuak beste estatu kide batzuetan ematen dituen zerbitzu-emaileen batek zenbait jokabide izan edo zenbait ekintza egin dituela, estatu kide horren ustez, pertsonen nahiz ingurumenaren segurtasunari eta osasunari kalte larriak sor diezaioketenak, estatu kide horrek ahalik eta lasterren emango die horren berri estatu kide guztiei eta Batzordeari.

30. artikulua

Ezarpn-lekuko estatu kideak egin beharreko ikuskapena, baldin eta zerbitzu-emaile bat aldi baterako beste estatu kideren batera joaten bada

1. 31. artikuluko 1. paragrafoan aurreikusi gabeko kasuei dagokienez, ezarpn-lekuko estatu kideak bermatuko du bere baldintzak betetzen direla kontrolatzen dela, bere herrialdeko legedian aurreikusitako ikuskapen-gaitasunen arabera kontrolatu ere, batez ere, emailearen ezarpn-lekuko kontrol-neurriak aplikatuz.

2. Ezarpn-lekuko estatu kideak ez dio utziko kontrol-neurriak edo hertsapen-neurriak bere lurraldean aplikatzeari, nahiz eta zerbitzua jada emana izan edo kalteak beste estatu kideren batean gertatu izan.

3. Artikulu honetako 1. paragrafoak ezarritako betebeharrak ez du xedatzen establezimenduko estatu kideak zerbitzua ematen den estatu kidean egiaztapenak eta kontrolak egin behar dituenik. Egiaztapen eta kontrol horiek emailea aldi baterako operatzen ari den estatu kideko autoritate eskumendunek egingo dituzte, ezarpn-lekuko estatu kideak hala eskatuta eta 31. artikuluari jarraiki.

31. artikulua

Zerbitzu-emailea mugitzean, zerbitzua ematen deneko estatu kideak egin beharreko ikuskapena

1. 16. eta 17. artikuluei jarraiki inposa daitezkeen herrialde-mailako betekizunei dagokienez, zerbitzua ematen deneko estatu kideak zerbitzu-emailearen jarduera bere lurraldean ikuskatzeko erantzukizuna izango du. Erkidegoko Zuzenbidearen arabera, erantzukizun hauek izango ditu zerbitzua ematen deneko estatu kideak:

a) jarduera baten atzipenari edo horretan aritzeari aplikagarri zaizkion betekizunak errespetatzen direla bermatzeko behar diren neurri guztiak hartuko ditu;

b) emandako zerbitzua ikuskatzeko behar diren egiaztapenak, ikuskapenak eta ikerketak bideratuko ditu.

2. Artikulu honetako 1. paragrafoan aipatu ez diren betekizunei dagokienez, zerbitzu-emaile bat, bertan establezimendurik izan gabe, aldi baterako zerbitzua emateko beste estatu kide batera doan kasuetan, estatu kide horretako autoritate eskumendunek zerbitzu-emailearen ikuskapenean parte hartuko dute, 3. eta 4. paragrafoei jarraiki.

3. Ezarpn-lekuko estatu kideak hala eskatuta, zerbitzua ematen deneko estatu kideko autoritate eskumendunek egiaztapenak, ikuskapenak eta ikerketak egingo dituzte, ezarpn-lekuko estatu kidearen ikuskapen-jarduerak eraginkorrak direla bermatzeko. Hori egitean, beren estatu kidearen

barruan esleituta dituzten eskumenen mugen barruan jardungo dira autoritate eskumendunak. Autoritate eskumendunek kasu bakoitzerako neurririk egokienak erabaki ahal izango dituzte, ezarpen-lekuko estatu kidearen eskariari erantzuteko.

4. Zerbitzua ematen deneko estatu kideko autoritate eskumendunek, ekimen propioz egin ahal izango dituzte egiaztapenak, ikuskapenak eta ikerketak *in situ*, baldin eta neurrizkoak badira, diskriminatzaileak ez badira, eta ez badira egiten zerbitzu-emaileak ezarpen-lekua beste estatu kide batean duelako.

32. artikulua

Alerta-mekanismoa

1. Estatu kide batek bere ustez pertsonen nahiz ingurugiroaren osasunerako eta segurtasunerako kalte larriak sor ditzaketen zerbitzuak bere lurraldean beste estatu kide batean ematen dituen zerbitzu-emaile baten jokabidearen edo gertakarien berri zehatza duenean, ahalik eta lasterren jakinaraziko die ezarpen-lekuko estatu kideari, gainerako estatu kide guztiei eta Batzordeari.

2. Batzordeak estatu kideetako autoritateen sare europarraren sorrera bultzatuko du eta bertan parte hartuko du 1. paragrafoa aplikatzeko xedearekin.

3. 40. artikuluko 2. paragrafoari jarraiki, Batzordeak aldizka hartu eta eguneratuko ditu artikuluko honetako 2. paragrafoan mintzagai den sarearen kudeaketari buruzko arau zehatzak.

33. artikulua

Zerbitzu-emailearen ohoreari buruzko informazioa

1. Beste estatu kide bateko autoritate eskumendunek hala eskatuta, eta haien herrialdeko legediari jarraiki, estatu kideek zerbitzu-emaile bati dagokionez autoritate eskumendunek hartutako diziplina-neurriak, administrazio-neurriak, nahiz zigor penalen eta iruzurreko porroten inguruko erabakiak, alegia, zerbitzu-emailearen gaitasunaren nahiz fidagarritasunarekin erlazio zuzena dutenak jakinaraziko dizkiote. Informazio hori helarazten duen estatu kideak zerbitzu-emaileari jakinarazi beharko dio.

Lehen lerrokadaren arabera egindako eskariak arrazoitua izan behar du, batez ere, informazio-eskaera oinarritzen duten arrazoiei dagokienez.

2. Artikulu honetako 1. paragrafoan mintzagai diren zehapen eta neurriak behin betiko erabakia badira baino ez dira komunikatuko. Artikulu honetako 1. paragrafoan jasotako gainerako erabaki aplikagarriei dagokienez, datuak komunikatzen dituen estatu kideak zehaztu beharko du behin betiko erabakia den edo erabakiaren aurkako helegitea aurkeztu den, eta azken kasu horretan, balizko helegitearen data posiblea.

Gainera, zerbitzu-emailea zehatzeko edo kondenatzeko oinarri gisa erabili diren xedapen nazionalak ere zehaztu beharko ditu.

3. Artikulu honetako 1. eta 2. paragrafoak datu pertsonalen babeserako arauak nahiz estatu kide bakoitzean kondenatutako edo zehatutako pertsonen eskubideak errespetatuz aplikatu beharko dira, baita profesionalen elkargoen kasuan ere. Horri buruz argitaratzen den informazio oro kontsumitzaileen esku egongo da.

34. artikulua

Neurri osagarriak

1. Batzordeak, estatu kideekin lankidetzan, estatu kideen artean informazioa trukatzeko sistema elektronikoa ezarriko du, existitzen diren informazio-sistemak kontuan hartuz.

2. Estatu kideek, Batzordearen laguntzarekin, neurri osagarriak hartuko dituzte elkarrekiko asistentzia bideratzeko erantzukizuna duten funtzionarioen elkartrukea erraztu eta horiek prestatze aldera, hizkuntzen eta informatikaren alorretan barne.

3. Batzordeak urte anitzeko programa ezartzeko beharra baloratuko du, funtzionarioen beharrezko elkartrukea eta prestakuntza antolatzeko.

35. artikulua

Elkarrekiko asistentzia banako salbuespenen kasuan

1. Estatu kideren batek 18. artikuluan aurreikusitako neurriren bat aplikatu nahi duen kasuetan, artikuluko honen 2. eta 6. paragrafoetan ezarritako prozedura aplikatuko da, prozedura judizialen kalterik gabe, aurretiazko prozedurak eta ikerketa penal baten kariaz egindako ekintzak barne.

2. Artikulu honetako 1. paragrafoan adierazitako estatu kideak establezimenduko estatu kideari eskatuko dio zerbitzu-emailearen aurkako neurriak har ditzan, eta delako zerbitzuari nahiz kasuaren inguruabarrei buruzko datu garrantzitsu guztiak emango ditu.

Ezarpen-lekuko estatu kideak ahalik eta lasterren egiaztatuko du zerbitzu-emaileak jarduerak legez egiten dituen ala ez, bai eta eskaria oinarritu zuten gertakarien izaera ere. Estatu kide horrek, ahalik eta lasterren jakinaraziko dizkio eskaria egin duen estatu kideari hartu edo aurreikusi dituen neurriak, edo hala bada, zergatik ez duen neurririk hartu.

3. Ezarpen-lekuko estatu kideak 2. paragrafoaren 2. lerrokadan aurreikusitako informazioa komunikatu ondoren, eskaria egin duen estatu kideak Batzordeari eta ezarpen-lekuko estatu kideari jakinaraziko die neurriak hartzeko duen intentzioa eta hauek zehaztuko ditu:

a) ezarpen-lekuko estatu kideak aurreikusi edo

hartu dituen neurriak nahikotzat ez jotzeko arrazoiak;

- b) aurreikusi dituen neurriek 18. artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituztela uste izateko arrazoiak.

4. Neurri horiek ezin izango dira hartu artikulua honetako 3. paragrafoan aurreikusitako jakinarazpenetik hamabost lanegun igaro arte.

5. Eskaria egin duen estatu kideak 4. paragrafoan jasotako epea bete ondoren neurriak hartzeko duen gaitasunaren kalterik gabe, Batzordeak ahalik eta lasterren aztertuko du jakinarazitako neurriak Erkidegoko zuzenbidearekin bateragarriak diren ala ez.

Batzordeak ondorioztatzen badu neurriak ez direla bateragarriak Erkidegoko Zuzenbidearekin, erabakia hartuko du dagokion estatu kideari aurreikusi dituen neurriak aplikatu ez ditzan edo neurriok berehala buka ditzan eskatzeko.

6. Larrialdi kasuetan, neurri bat hartzea aurreikusi duen estatu kideak 2., 3., eta 4. paragrafoetan aurreikusitakoari salbuespen bat erantsi ahal izango dio. Kasu horretan, neurriak ahalik eta lasterren jakinaraziko zaizkio Batzordeari eta ezarpen-lekuko estatu kideari, estatu kideak larrialdi-kasutzat jotzeko erabili dituen arrazoiak zehaztuz.

36. artikulua

Aplikazio-neurriak

40. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako prozedurari jarraiki, Batzordeak hartuko ditu funtsezkoak ez diren kapitulu honetako elementuak aldatzea nahiz 28. eta 35. artikuluetan mintzagai diren epeak ezarri kapitulua osatzea xede duten aplikazio-neurriak. Era berean, 40. artikuluko 2. paragrafoari jarraiki, Batzordeak hartuko ditu bide elektronikoak baliatuz estatu kideen arteko informazio-elkartrukeen neurri praktikoak, eta bereziki, informazio sistemen interoperatibitateari buruzko xedapenak.

VII. KAPITULUA

ELKARGANATZE-PROGRAMA

37. artikulua

Erkidego-mailako jokabide-kodeak

1. Estatu kideek, Batzordearekin lankidetzan, beharrezko neurri osagarriak hartuko dituzte Erkidego-mailan zerbitzuen ematea edo zerbitzu-emailea beste estatu kide batean ezartzeko aukera errazteko jokabide-kodeak sustatzeko, batez ere, profesionalen elkargo, erakunde eta elkarten aldetik eta, betiere, Erkidegoko Zuzenbidearen arabera.

2. Estatu kideek beharrezkoa den guztia egingo dute bide elektronikoak baliatuz 1. paragrafoan aurreikusitako jokabide-kodeak urrutitik atzitu ahal

izan daitezten.

38. artikulua

Harmonizazio osagarria

Gehienez jota 2010eko abenduaren 28an, Batzordeak puntu hauei buruzko harmonizazio-tresnen proposamenak aurkezteko aukera aztertuko du:

- a) zorrak bide judiziala baliatuz kobratzearekin erlazionatutako jardueren atzipena;
- b) segurtasun pribatuko zerbitzuak eta funtsak nahiz baliozko objektuak garraiatzeko zerbitzuak.

39. artikulua

Elkarrekiko ebaluazioa

1. 2009ko abenduaren 28a izango da azken epea estatu kideek Batzordeari aurkez diezaioten artikulua hauetan zehaztutako informazioa jasoko duen txostena:

- a) 9. artikulua 2. paragrafoa, baimentze-erregimenei buruzkoa;
- b) 15. artikulua 5. paragrafoa, ebaluatu behar diren betekizunei buruzkoa;
- c) 25. artikulua 3. paragrafoa, diziplina anitzeko jardueri buruzkoa.

2. Batzordeak 1. paragrafoan adierazitako txostenak helaraziko dizkie estatu kideei, eta horiek sei hilabeteko epea izango dute txosten bakoitzaren inguruko iruzkinak aurkezteko. Epe horren barruan, Batzordeak txostenei buruzko kontsultak egingo dizkie alde interesatuei.

3. Batzordeak 40. artikulua 1. paragrafoan aurreikusitako batzordeari aurkeztuko dizkio estatu kideen txostenak eta iruzkinak, eta batzordeak bere iritzia eman ahal izango du.

4. Artikulu honetako 2. eta 3. paragrafoetan jasotako oharra kontuan hartuta, eta gehienez jota 2010eko abenduaren 28an, Batzordeak Europar Parlamentuari eta Kontseiluari aurkeztuko die sintesi-txosten bat eta, hala badagokio, proposamen osagarriak.

5. Gehienez jota 2009ko abenduaren 28an, estatu kideek Batzordeari aurkeztuko diote 16. artikulua 1. paragrafoko hirugarren lerrokadaren bidez nahiz 16. artikulua 3. paragrafoko lehen esaldiaren bidez aplikatutako betekizun nazionalen buruzko txostena, eta betekizun horien aplikazioak 16. artikulua 1. paragrafoko hirugarren lerrokadako nahiz 16. artikulua 3. paragrafoko lehen esaldiko irizpideak betetzen dituela baieztatzeko dituzten arrazoiak azalduko dizkiote.

Horren ondoren, estatu kideek Batzordeari helaraziko diote beren eskakizunen aldaketa oro, eskakizun berriak barne, horiek justifikatzeko arrazoiekin

batera.

Batzordeak helarazitako betekizunen berri emango die gainerako estatu kideei. Helarazpen horrek ez die estatu kideei eragotziko xedapen horiek onartzea. Horren ondoren, Batzordeak urtero aurkeztuko ditu xedapen horiek zuzentarau honen testuinguruan aplikatzeari buruzko analisi eta orientabideak.

40. artikulua

Komitea

1. Batzordeak komite baten laguntza jasoko du.
2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5. eta 7. artikulua izango dira aplikagarri, 8. artikuluan xedatutakoa betez. 1999/468/EE Erabakiaren 5. artikuluko 6. paragrafoan aurreikusitako epea hiru hilabetekoa izango da.
3. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5bis artikuluko 1. eta 4. paragrafoak nahiz 7. artikulua izango dira aplikagarri, erabaki horren 8. artikuluan xedatutakoa kontutan hartuz.

41. artikulua

Berrikuspen-klausula

Gehienez jota 2011ko abenduaren 28an, eta aurrerantzean, hiru hilero, Batzordeak Europar Parlamentuari eta Kontseiluari aurkeztuko die zuzentarau honen aplikazioari buruzko txostena. 16. artikulua 4. paragrafoari jarraiki, txostenak 16. artikulua aplikazioa jorratuko du zehazki. Zuzentarau honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen diren gaiei buruzko neurri osagarriak ere egingo die erreferentzia. Egokia bada, zerbitzuen barne-merkatua osatzeko xedearekin zuzentarau hau aldatzeko proposamenak ere erantsiko ditu.

42. artikulua

98/27/EE Zuzentaruaren aldaketa

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1998ko maiatzaren 19ko 98/27/EE Zuzentaruaren, kontsumitzaileen interesen babesarekin erlazionatutako uzte-ekintzei buruzkoaren ⁽¹⁾ eranskinari, puntu hau erantsi zaio:

«13. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/123/EE Zuzentaruak, 2006ko abenduaren 12koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa (EO L

¹ EO L 166, 1998.6.11koa, 51. or. Azken aldiz 2005/29/EE Zuzentaruaren bidez aldatutako zuzentaruak.

376, 2006.12.27koa, 36. or.)»

43. artikulua

Datu pertsonalen babesa

Zuzentarau honen, eta bereziki, berrikuspenaren inguruko xedapenen aplikazioa eta exekuzioa datu pertsonalak babesteko 95/46/EE eta 2002/58/EE Zuzentaruatan ezarritako arauak errespetatuko dituzte.

VIII. KAPITULUA

AZKEN XEDAPENAK

44. artikulua

Barne-zuzenbidean jasotzea

1. Gehienez jota 2009ko abenduaren 28an, estatu kideek indarrean jarriko dituzte zuzentarau honetan xedatutakoa betetzeko behar diren lege-, erregelamendu eta administrazio-xedapenak.

Berehala jakinaraziko diote Batzordeari xedapen horien testua.

Estatu kideek xedapen horiek onartzen dituztenean, xedapenek zuzentarau honen erreferentzia bat izango dute edo erreferentzia hori jasoko dute horien argitalpen ofizialean. Estatu kideek erreferentzia horren modalitateak ezarriko dituzte.

2. Estatu kideek Batzordeari komunikatuko diote zuzentarau honek araututako esparruan onartzen dituzten barne-zuzenbideko xedapen nagusien testua.

45. artikulua

Indarrean sartzea

Zuzentarau hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

46. artikulua

Hartzaileak

Estatu kideak dira zuzentarau honen hartzaileak.

Estrasburgon egina, 2006ko abenduaren 12an.

Europako Parlamentuaren izenean
Presidentea
J. BORRELL FONTELLES

Kontseiluaren izenean
Presidentea
M. PEKKARINEN